

**Kode-alternantzia eta hizkuntza
ohiturak Gabiriako bi belaunalditan**

SAKONTZE EGITASMOA 2014



Gure hitzak
Esan berriz esan
Ez daitezela ahaztu
Ez daitezela gal
Elur gainean
Txori hanka arinek
Utzitako arrasto sail
Ederra bezalaxe

Txoritua norat hua
Bi hegalez airian

Zer dio isiltzen denak
Isiltzen denean?

Gizon galduak, nork lagunduko?
Miseria sufri ezin dutenak

Oi lur, oi lur, ene lur enea...

Maitea nun zira
Nik ez zaitut ikusten
Ez berririk jakiten
Nurat galdu zira

(Bernardo Atxaga, Mikel Laboa)

Iñigo Igartzabal Bidegain
TUTOREA: Iñaki Martinez de Luna

HIZNET – Hizkuntza Plangintza Ikastaroa –

Alderdi teorikoa

1. Hizkuntzak ukipenean
 - Kode-alternantzia
2. Hizkuntza ohiturak
3. Gabiriako hizkuntza-ezaugarriak
 - Datu orokorrak
 - Datu soziolinguistikoak

Alderdi enpirikoa

4. Aurrez eginikoa
5. Helburuak
6. Hipotesiak
7. Ikerketaren nondik norakoak

8. Informazioa lantzeko software-a

9. Transkripzio irizpideak

10. Ahozko jardunaren azterketa

- Etengabe erabiltzen diren gaztelerako partikulak
 - Diskurtsoa antolatzeakoak
 - Interjekzioak
 - Preposizioak
- Gaztelerako esamoldeak, sintaxia
 - Gaztelerako espresioak gazteleraz
 - Gaztelerako espresioak euskaraz
 - Aditza esaldiaren hasieran
- Irain eta biraoak
- Lexikoa
- Beste pertsona batek/batzuek edo eurek une jakin batean esandakoa

11. Emaitzak, ondorioak eta aurrerabideak

12. Eranskinak

13. Bibliografia

1. Hizkuntzak ukipenean

Bizi garen mundu honetan 6000 hizkuntzatik gora daudela diote hainbat adituk eta jakina da 200 estatu baino ez daudela. Hau honela izanik, gauza nabaria da estatuetako hizkuntza ofizialez gain badaudela beste hainbat eta hainbat hizkuntza herri horietan. Adibide batzuk jartzearren, Ethnologue erakundearen arabera, Papua Ginea Berrian 836 hizkuntza daude eta lau milioi pertsona inguru bizi dira bertan, Indonesian 707 hizkuntza daude, Nigerian 529 hizkuntza, Indian 454 eta Amerikako Estatu Batuetan 420. Honekin esan nahi dudana zera da, hizkuntza horietako hiztunak edo hizkuntza komunitateak etengabeko harremana dutela beste hizkuntza batekin edo zenbait kasutan batzuekin.

Hizkuntza ukipenari hainbat autorek emandako **definizio batzuk** ekarriko ditugu orain hona; esaterako Uriel Weinreich poloniar jatorriko estatubatuarrek honela definitu zuen: "bi hizkuntza edo gehiago ukipenean direla esaten da pertsona berek txandaka erabiltzen baldin badituzte" (1953:1). Joshua A. Fishman soziolinguista estatubatuarrek dio, aldiz, bi hizkuntzak ez direla bi talde desberdin islatuko balituzte bezala ikusi behar, baizik eta talde bakar bat bezala. Hiztunek hizkuntza-komunitate bakar bat osatzen dutela dio, hizkuntzak ez direla isolatuak eta bi hizkuntzen artean nolabaiteko gainjartze bat ematen dela.

Jean Baptiste Coyos Etxebarnek Soziolinguistika eskuliburuan aipatu bezala "munduko hizkuntzak, beraz, ez dira isolatuak, ukipenean dira" (Coyos, 2005:135). Aurrerago honela jarraitzen du; "hizkuntza-komunitate ezberdinetako hiztunak elkarrekin komunikatzeko gai ez baldin badira, elkarrekiko harremanik ez da. Hiztun talde bakoitzak bere

bizitza osoa bere hizkuntzan egiten du osoki eta beste taldeak berean. Horrelako kasu baten aurrean, ukipenik ez dagoela esan daiteke, baina lurralde berean guztiz isolaturik bi talde edo gehiago bizitzea pentsaezina da. Elkarren ondoan bizi diren taldeen artean, elkarren arteko bi hizkuntzak ezagutzen dituen jendea egoten da. Beraz, hizkuntzak hiztun elebidunen bidez izaten dira elkartuak” (Coyos, 2005:135).

Beraz, ukipenean dauden hizkuntza-komunitateak elebiduna behar du izan baldin eta elkarrekin komunikatzeko gaitasunik izango badute. Bestela, hizkuntza isolatuak izango lirateke. Nola ematen da, ordea, guzti hau gurean? Jakina da euskarak historian zehar hainbat eta hainbat hizkuntzekin mantendu izan dituela hartu emanak; bai iberiera, zelta, latina, arabiera edota baita okzitanierarekin ere. Gaur egungo egoeran ere Bidasoaz goitik frantsesarekin ukipenean dago euskara eta Bidasoaz beheiti, berriz, gaztelerarekin. Globalizazioaren eragina ere gero eta handiagoa den garai hauetan ingelesaren presentzia ere gero eta nabariagoa da eta honek ere badu eraginik. Gainera, urtetik urtera Euskal Herrian hitz egiten den hizkuntza kopurua ere ugaltu egin da: arabiera, amazigera, errumaniera, txinera... Kontuak horrela, euskara ere hizkuntza ukipenean bizi da eta euskaraz dakiten guztiek euskaraz gain beste hizkuntza bat behintzat badakite, hau da, esateko ia ez dago euskaldun elebakarrik. Euskara dakigunok elebidunak gara, hau da, bi hizkuntza gutxienerako maila batean menperatzen ditugu. Ez dagoena argi, ordea, gutxienerako maila hori zein den da. Orain, ordea, ez gara horretan luzatuko.

- Kode-alternantzia

Bi hizkuntza jakin eta erabiltzeak gure hitz egiteko moduan eragina izaten du. Hizkuntzek elkarri eragiten diote eta interferentziak sortzen dira. Interferentzia horiek gure diskurtsoetan bi modutara agertzen dira (Coyos, 2005:145/146): kode-nahasketa bidez edota kode-alternantzia bidez. Lionel Jolyk ere, *Soziolinguistikaren oinarritzko kontzeptuak* txostenean honela dio, "gizarte maila eta maila indibiduala ezberdindu behar dira interferentzien azterketa egiterakoan. Lehenengoa, gizarte maila, hizkuntzari dagokio (hizkuntza nahasmena/code mixing) eta bestea, aldiz, diskurtsoari dagokio (hizkuntza alternantzia/code switching)". (Joly, 2014:27).

Mundu mailan *code-switching* izenez ezagutzen da termino hau eta hainbat iturritan begiratzuz jakin dugu 70. hamarkadara arte baztertuta egon izan dela. BAT soziolinguistika aldizkarian aipatzen den moduan "semihiztunek ekoiztutako gramatikarik gabeko hizkuntzen nahasketa edo mordoilotzat hartua izan da" (Inma Muñoa, 2002; BAT soziolinguistika aldizakaria. 42.alea) . Definizio asko eman izan dira eta nahasteak ere sarritan sortu izan dira. Hau dela eta ez gara asko luzatuko eta autore ezberdinen pare bat definizio soilik emango ditugu kontzeptua argitzearren. Horiekin eta adibideak gaineratuta hobeto ulertuko dugu zertaz ari garen.

Gumperzek (1982) esaterako, kode aldaketa diskurtso mota bat dela zioen. Hizkuntza komunitate bateko elebidunek komunikaziorako hauta dezaketen aukera bat, hiztun elebakarrek erregistro edo dialekto ezberdinen artean mugitzea edo batetik bestera aldatzea aukeratu dezaketen bezala (BAT, 42.alea).

“La alternancia ha sido definida como el uso de más de una lengua en un acto de habla y también como el cambio de una variedad lingüística a otra cuando lo requiere la situación... requiere un nivel alto de competencia comunicativa en las dos lenguas involucradas y se produce inconscientemente, sin ningún tipo de esfuerzo o vacilación” (Vinagre, 2005:11/17).

Pare bat adibide,

Lehenengoa euskara eta gazteleraren artekoa (ikerketa honetako bertakoa) da eta bigarrena, berriz, ingelesa eta gazteleraren artekoa (Vinagre, 2005: 28).

* (1) – Pentsau, 2. eunen *a la puta calle !* Kateian, *caro*, azkenen hoi dek asuntoa.

(2) – Ze pentsatze zon etziela konturauko?

(1) – Hua bere lana eitten ai zan! *Esto tiene que sacar ruido... pum y a tomar por culo!(...)* Kateian hori azkenen izan beharra zeukik aspergarrie, *hasta las narices! (...)* *O sea*, pazientzie ez, hire burue *nulo* izatea *limitau* beharra daukek. *O sea* eztek pentsau behar!(...) *Es que* azkenen lan danak zeukiek berea, *baño es que* hori... *madre mia!*

(2) – Ya! *Baño* lan batzutan *interactuau* deikezu!

(1) – Bai! *Hombre* azkenen nik eun osoa *casi* bakarrik pasatze ´t baita, *baño* beti norbaittekin ai naiz. *O sea* bakarrik, *baño* beti norbaitt baneuke bezela.

* *Oye*, when I was freshman I had a term paper to do...

(...)

And all of a sudden, I started acting real *curiosa*, you know. I started going like this. *Y luego decía*. Look at the smoke coming out of my fingers, like that. And then *me dijo*, stop acting silly. *Y luego decía yo, mira* can´t you see. *Y luego éste*, I started seeing like little stars all over the place. *Y volteaba yo asina y le decía* look at...the... *no sé era brillosito así* like stars.

Interferentzia motak, hiru motatakoak dira bereziki (Joly, 2014:29)

- Fonologikoak: A hizkuntza B hizkuntza moduan ahoskatzen da.
- Sintaktikoak: B hizkuntzaren estrukturak erabiltzen dira A hizkuntza erabiltzerakoan.
- Lexikoari lotutakoak: hitzak hizkuntza batetik hartzen direnean beste batean txertatzeko.

Maileguak

Vinagre Laranjeirak dioen moduan, arazo gehiago sortzen dira alternantziarengandik ezberdintzeko orduan. Honela jarraitzen du, "el préstamo se refiere al uso de una palabra o expresión de una lengua en otra (...) El préstamo no requiere un nivel alto de competencia comunicativa en la segunda lengua, lo que podría inducirnos a pensar que existe una diferencia clara entre préstamo y cambio de código. Sin embargo, los numerosos estudios realizados concluyen que es difícil establecer los límites entre uno y otro" (Vinagre, 2005:18/19).

Lionel Jolyk bi mailegu ezberdindu behar ditugula esaten du; hizkuntzarena: hizkuntza komunitate osoak erabiltzen duen mailegua eta diskurtsoarena, gizabanakoak erabiltzen duena. (Joly, 2014:29/30).

Argipenak

- Hizkuntzarenak aipatzen hasita, gaztelerako *tomate* hitza aipatzen du Lionelek (Amerikako nahuatletik datorrena), edo robot (Txekia), football (ingelesa) eta abar. Hizkuntzaren zati bihurtzen dira denbora pasatu ahala.
- Diskurtsoarenak, berriz, bi modutan ezberdintzen ditu: bata elebidun osatuek (bi hizkuntzetan ezagutza maila altua dutenak) egiten dituztenak: beste hizkuntza batetako hitza

txertatzen dute baliokiderik ez dagoelako; eta bestea, ezagutza faltagatik gertatzen dena, hiztunak beste hizkuntzan hitza txertatzen du bere baliokidea ezagutzen ez duelako.

Kalkoak

Lionel Jolyri segiz, maileguaren mota berezi bat bezala sailkatzen du. Espresio edo egitura baten itzulpen zuzena egitean datzala dio, jatorrizko estruktura aldatu gabe. (Joly, 2014:30).

Adibidez,

- Ilea hartu!
- Pena merezi du!

Kode aldaketaren funtzioak zein izan daitezkeen aipatuko ditugu orain.

Hizkuntzak ukipenean egotearen ondorioz kode aldaketa gertatzen dela esan dugu, eta hau emateko gizarteak elebiduna izan behar duela. Etxabe Aramendik (Etxabe, 1993:E atala) bere lanean aipatu moduan, **komunikazioan oinarritzen da *code-switching*** delakoa. Ikerlan batetik bestera alde nabarmenak badaude ere, entresaka egin dugu. Honela, oro har betetzen duen funtzioa aipatuko dugu inoren sailkapenetan sartu gabe.

- Lingüistikoa izan daiteke kode aldaketa egitearen zergatietako bat. Posible baita hiztunak erdarara (gure kasuan) jotzea dena delakoa euskaraz esateko gai ez delako.
- Gizatalde bati elkartasuna adierazteko.
- Diskurtsoaren norabidea egituratzeko, hau da, ahozko testua antolatzekeo.

- Oso barneratua dituelako bigarren hizkuntza horretako lexikoa edota espresioak. Gai zehatz batzuetan gainera, oso ohikoa da kodez aldatzea (lan-munduan esaterako).
- Beste pertsona batek esandakoa gaira ekartzeko. Betiere pertsona horren (bera izanda ere) paperean jarririk.
- Esan nahi duen horri nolabaiteko indarra edo garrantzia emateko. Baita garrantzia kentzeko ere.
- Ironia edo umorea adierazteko.
- Irain eta biraoak esateko. Beste batek esandakoa arbuiatzeko.

Arriskuak ere izan ditzake honek, ordea. Kontutan hartu behar baitugu normalean kode aldaketa hizkuntza menderatzailetik menderatura gertatzen dela. Gainera, gure kasuan bezala hizkuntza normalizatua ez baldin bada, are eta kaltegarriagoa izan daiteke ukipenaren ondorioa.

Aurrez esan bezala, bi hizkuntza ukipenean daudenean eta elkarren aurka talka egitean **interferentziak** sortzen dira eta Mikel Zalbidek poliki asko azaldu zigun gisara honelako kasuetan bi aukera izaten dira: "bata **elebidun bihurtzea** eta bestea zeuk dakizun hizkuntza horren kaltetan beste hizkuntzara pasatzea (language shift edo **mintzaldatzea** bezala ezagutua). kontaktu lingüistikoa dagoenean eta jendea jendearekin nahasten den bitartean, beti gertatuko dira hiru gauza horiek. Kontua ez baita hemengoa bakarrik, unibertsala da. Beraz, arriskua hor dago betiere. Mintzaldatzea deitzen zaio eta fenomeno sozial bat da; A hizkuntzatik B hizkuntzara pasatzea" (Zalbide, 2014). Honetan gehiago sakondu nahi izanez gero jo Mikel Zalbideren *Joshua A.Fishmanen RLS edo HINBE* txostenera, bibliografian dagoen web orrian dago eskuragarri. Biziki interesgarria!

2. Hizkuntza ohiturak

Hizkuntza ohiturak beste ohitura guztiak bezala ohiturak dira, noski. Denboraren poderioz ohiko bihurtzen direnak eta askotan baita errutina ere. Konturatu ere egin gabe egiten dugu egiten dugun hizkuntzan edo hizkeran parean daukagunarekin. Behin ohitura batzuk geure eginda gainera ez da erraza izaten horiek aldatzea, askotan ezta horretarako geure indar guztiak jarrita ere.

Edozein dela ere, hizkuntza bat ikasteko nahiz erabiltzeko motibazioaz hitz egiterakoan, Olatz Olasok dio jarrerak ezin ditugula alde batera utzi. Gizarte psikologian jarreraren ikasketa oinarrizko gaietako bat izaten dela aipatzen du eta jarrerek erantzun ikasia izaten dutela ere azpimarratzekoa da (Zimbardo eta Leippe, 1991). Pertsona bat hizkuntza batean ezagutu baldin baduzu, hala jarraituko duzu berarekin topo egiten duzun bakoitzean. Ohitura kontua da. Ohiturak, ordea, ikasi egiten dira. Askotan ez da nahikoa izaten geure hizkuntza mantendu nahi izatea eta haren aldeko jarrera edukitzea, kosta egiten baitzaigu gero modu koherentean jokatzeko. Horretarako, TELP tailerrak sortu dituzte. Norberaren hizkuntza portaeren ohituren kontzientzia hartzeraz laguntzen dute eta euskaraz gehiago eta erosoago egiteko baliabideak eskaintzen dituzte. Kataluniako eredu (Taller d'Espai Lingüístic Personal) hona ekarri du Gemma Sanginés eta Ferran Suay bikoteak, eta esango nuke badugula eurengandik zer ikasia. Orain, EMUN kooperatiba arduratzen da tailer horiek emateaz eta esaten dute distantzia linguistikoak kontuan hartuta ere, hiztunon bizipenak oso antzekoak direla han eta hemen.

Hizkuntza ukipena dela eta, orduan, euskaldun elebidunok **hizkuntza aukeraketa** egin beharrean suertatzen gara askotan eta honen ondorioz, estres linguistikoa bezala ezagutua den kontzeptua pairatzen dugu. "Hizkuntza ez normalizatu bat erabiltzen duenak jasaten du. Hiztunak bere hizkuntza erabili ala ez etengabe erabaki behar duenean, nekea sortzen da. **Neke horri esaten diogu estres linguistikoa**" (badubada, 2013). Kontzeptu zertan datzan hobeto jakin nahi izanez gero, bizliografian dago lotura interesgarri bat.

Gemma Sanginési ARGIA astekariak (ARGIA, 2013/12/15) eginiko elkarrizketa batean honela dio, "autoestimu falta handia dago hizkuntza gutxituen hiztunen artean eta hori buruan sartu diguten zerbait da. Hizkuntza gutxituen hiztunak askotan urpekariak bezalakoak gara: ur-azalaren azpian geratzen gara eta soilik eremu ziurretan ateratzen gara azalera ". Euskararen egoera zein den badakigu eta gazteleraren eragina zenbateraino den mehatxu esatea ez da erraza. Askotan oso erraz pasatzen baikara gaztelerara, guri bost inportako balitzaigu bezala. **Beti hizkuntza aldaketa norabide berean** eginez. Ez dago esan beharrik zein den norabide hori, badirudi herri honetan bi hizkuntza jakiteak buruhaustea baino ez dizkigula sortzen. Honela jarraitzen du Sanginésék, " ... baina badakigu pertsona desberdinak garela hizkuntza batean edo bestean. Zuk euskaraz pentsatzen eta sentitzen baduzu zure barne mundua askoz hobeki adieraziko duzu euskaraz eta hori errespetatu egin behar da. Esaten dizutenean zuri bost axola edo ez zaizula ezer kostatzen, eskatzen dizute ahalegin gehigarri bat egiteko eta ikasi egin behar dugu hori argi adierazten eta aldarrikatzen. **Kortesiak bi norabidetakoa izan behar du eta ez beti norabide berekoa**".

Honekin lotuta, hona Ferran Suayk idatzitako istorio bat. Kataluniako kasuaren ispilu da, baina lehen aipatu bezala, distantziak distantzia, bizipenak oso antzekoak dira. (Bibliografian dago Gasteizen Euskaraz Bizi Eguna dela eta istorio berarekin egindako bideoaren lotura).

BAHAMARREN EDUKAZIO ONA

“Gero [osabak] (...) Bahama uharteetara egin zuen bidaia kontatu zigun (...). Gizonak eta emakumeak, guztiak ziren eder askoak, begi handi-handiak zituzten guztiek eta batzuek baita berdeak ere. Bazindoazen kale espaloitik tikirritakarra eta, haietako bat aurrean ikusi baino lehen, espaloitik jaisten ziren pasatzen uzteko. Hasieran, osabak adeitasunaren eta edukazio onaren keinu bikaina zela pentsatu zuen, baina arreta handia jartzen zenez inguruan gertatzen zirenei, berehalaxe konturatu zen beti beltzek uzten zutela pasatzen, eta gainera soilik zuriekin egiten zutela eta ez euren artean; izan ere bi beltzek elkar aurkitzen zutenean espaloi beretik joaten ziren arazo handirik gabe. Kontakizuna bukatu zuenean entzule denok bat etorri ginen. Hura diskriminazio kasu nabaria zen bahamarrentzat, kanpotarrei sistematikoki lehentasuna eman behar baitzioten morroiak balira bezalaxe. Baten batek erantsi zuen: «Ene... han ere kanpotarrak nagusi». Horretan ari ginela, sumisio nazkagarri haren kontrako indignazioa konpartitzen, osabaren bilobetariko bat iritsi zen andregaiarekin, eta neskak adeitasunez agurtu gintuen: «Buenas noches.» (...) Hura iritsi arte zazpi katalan zeuden gelan. Ordutik aurrera, gelan sartzen zen edonork esango zukeen bederatzi gaztelaniadunen aurrean zegoela, izan ere, harrezkero hitz egin zuten guztiek neska iritsi berriaren hizkuntzan egin zuten. Bi hitz aski izan zituen nire familiarren konbertsio linguistikoaren mirari hura eragiteko. Bitartean, osaba Enric, solasaren erritmoa galdua, hanketara begira zegoen, isilik, eta niri gogora etorri zitzaizkidan, auskalo zergatik, Bahametako beltz eder haiek.”

3. Gabiriako hizkuntza-ezaugarriak

Datu orokorrak

Gabiria, Gipuzkoako Goierri bailaran kokaturik dagoen udalerria da. Bertan, 500 pertsona inguru bizi dira mendiz inguraturiko paisaia zoragarrian. Bere mugakideak honako udalerrri hauek dira: Iparraldean, Zumarraga eta Ezkio-Itsaso; hegoaldean Mutiloa; ekialdean Ormaiztegi eta Ezkio-Itsaso eta mendebaldean, berriz, Legazpi.

Gabiriako herri gunea itsaso mailatik 414 metrotara dago eta 14,9 km²-ko azalera du. Bertako lurretan dauden mendi nagusienak Aizeleku (812) eta Trapaleta (634) dira. Bertatik igarotzen den ibai nagusia, berriz, Eztanda da eta hau Oria ibairantz doa.

Urteak aurrera joan ahala, nekazaritza eta abeltzaintza alde batetara utziak izan dira, industrializazioaren ondorioz. Dauden baserri gehienak minifundistak (10 hektarea baino gutxiago) dira. Bertako biztanleek industrian dihardute, nekazaritza eta abeltzaintza jarduera osagarriak baino ez dira.



Datu soziolinguistikoak

Biztanleriak etengabe beherantz jo du XIX. mendearen bigarren erdian hasita gaur arte, eta 1950. urtetik aurrera beherakada hau areagotu egin da. 1950ean 838 biztanle zeuden, 1996an 428. Azken hamarkada honetan, ordea, egin diren etxe berrietara etorri den jendearen ondorioz gorakada bat eman da eta egun, 2013ko erroldaren arabera 506 biztanle daude.

Hizkuntza gaitasunari buruzko datuak honakoak dira. 1991, 2001 eta 2011. urteetakoak.

Hizkuntza-gaitasuna (> = 5 urte), adinaren arabera (%)

URTEA	1991	2001	2011
Biztanleak	415	394	483
Elebidunak	98,6	95,7	88,0
Elebidun hartzaileak	1,2	2,8	4,3
Erdaldunak	0,2	1,5	7,7

Honakoak, berriz, etxeko erabileraren datuak.

Etxeko erabilera (> = 5 urte), adinaren arabera (%)

URTEA	1991	2001	2011
Guztira	415	394	483
Euskara	96,1	88,3	74,4
Euskara eta gaztelera	2,2	8,4	8,1
Gaztelera	1,7	3,3	16,6
Beste bat	0,0	0,0	0,6

(Eusko Jaurlaritzako hezkuntza,
hizkuntza politika eta kultura saila, 2014)

Datu hauei erreparatzen badiegu ikus dezakegu azken hogeit urteetan elebidunen kopurua ia 10 puntu jaitsi dela ezagutzari dagokionez eta erabilerari dagokionez, berriz, 20 puntu baino gehiago. Aipatzekoa da baita ere, erdaldun elebakarren kopuruak eduki duen bilakaera. Orain hogeit urte apenas zegoen erdaldun elebakarrik, eta hogeit urtean ia 7,5 puntu igo da. Daturik esanguratsuena, ordea, gazteleraren etxeko erabilerarena da. Hogeit urtean 2 puntu baino gutxiago izatetik ia 17 puntutaraino igo baita. Ikaragarria! Horrela bat-batean begiratuta hotzikara sartzeko moduko zifrak dira. Datuak datu, hala ere, kontutan hartu beharreko zenbait gauza daudela iruditzen zait eta ez nituzke aipatu gabe utzi nahi.

Hasteko, esan behar da biztanleriak gorakada nabarmena izan duela hogeit urte horietan. Lehen esan bezala, batez ere azken hamarkada honetako kontua izan da. Jende asko etorri baita geure herrira bizi izatera bertan egin dituzten etxe berriak direla eta. Urtetik urtera goraka doa biztanleria eta ia orain hogeit urte baino ia ehun lagun gehiago izango gara. Esan behar da zenbaki baxuetan portzentajeak errazago egiten dutela gora, eta honela, 5-6 familia Gabirian edo Donostian esaterako ez direla gauza berdina. Hala ere, ez dago justifikaziorik, erdaldun elebakarren bilakaera 7,5 igo da hogeit urtean, baina etxeko erabilera ez da proportzionalki hazi, ezta gutxiago ere! Bikoitza hazi baita!

Datuak datu dira, bai; zenbaki txikietan portzentajeak errazago hazten dira, hala da! Baina, hausnarketa egin, egin beharra dagoela ez dago dudarik. Gabirian beti euskaraz egin izan da eta beti horrela izango delakoan bagaude jainkoari begira, apirilak harrapatuko gaitu martxoan, eta orduan bai komeriak. Zaindu ditzagun arnaseguneak!

4. Aurrez eginikoa

Ikerketarekin hasi baino lehen aurrez gai honetaz egindakoaz dokumentatzen jardun dugu. Honela, lehenik eta behin HIZNET ikastaroan egin diren lanei erreparatu diet; hala nola, Amets Etxaberena (Etxabe, 2005), Karmele Etxaberena (Etxabe, 2010) eta Lierni Etxeberriarena (Etxeberria, 2013). Horietan Getaria, Zaldibia - Ordizia eta Ibarako gazteen kode-alternantzia aztertzen da, hurrenez hurren. Hauez gain, Donostiako HABE liburutegian beste antzeko bi lan aurkitu ditut. Bata Durangoko gazteen kasua aztertzen duena, Inmaculada Fernandezena (Fernandez, 1992), eta bestea hizkuntza aukeraketa euskaldunen artean lantzen duena, Miren Arantzazu Etxaberena (Etxabe, 1993). Honela, gai honi buruz zer dagoen egin jakin ahal izan dut eta ezertan hasi baino lehen, egin ditudan kontsulta horietan zer ikusi dudana azalduko dut.

Amets Etxabek bere lanean Getariako 22-24 urte bitarteko gazteak elkarrizketatu zituen; bere asmoa euskaraz ari garelarik, gaztelerara noiz, zergatik eta zertarako aldatzen dugun jakitea izan zen. Elkar-hizketatuak hiru (hirurak neskak) eta elkar-hizketatzailea izan ziren, eta ikerketa burutzeko bi alditan grabatu zituen saio bakoitzean pare bat ordu eginez. Galdera jakinik egin gabe euren solasaldiak jaso nahi izan zituen. Lana hiru zatitan banatu zuen. Lehenik, kode-alternantziari buruzko hainbat ideia azaldu zituen, jarraian gazte-talde horren ikerketa egin zuen kode-alternantziaren zergatiak azalduaz, eta azkenik hirugarren puntu batean, egindako ikerketaren emaitzekin ondorio batzuk atera zituen. Ondorioetan aipatzen da, besteak beste, **“euskara bizi-bizirik dagoen eta hiztunek ezagutza-maila altua duten lekuetan ere kode-alternantzia egiten dela ikusita, hizkuntzaren ezagutzatik kanpo dagoen fenomeno dela esan daiteke, helburu ezberdinak lortzeko erabiltzen den fenomeno”** (Etxabe, 2005:26). Aipatutako funtzioak

beste ikerketa batzuetan aurkitutakoen antzekoak dira. Hala nola, kode-aldaketaren funtzio gisa honakoak aipatzen ditu: aurrez bizitako egoerak gogora ekartzeko erabiltzen da, adierazi nahi denari konnotazio berezia emateko, solasaldi informalagoak egiteko, gaztelaniako esapideak oso barneratuta izateagatik ere egiten da edota zerbaiten izen bereziari eutsi nahi zaionean ere bai (Etxabe, 2005:15/19).

*Karme*le Etxabek Goierriko herri diren Zaldibia eta Ordizian kode-alternantziak gazteengan (17-18 urte bitartekoak) duen eragina aztertu zuen. Lagunarteko ahozko nahiz idatzizko diskurtsoan dauden alternantzia mailak, eraginpean dauden eremuak (lexikoa, sintaxia, morfologia...), maiztasuna eta abar deskribatu zituen. Horrez gain, bi herrien artean alderik ba al zegoen aztertu nahi izan zuen eta ea kode-aldaketa hori gaztelerarekin bakarrik gertatzen ote den. Karmelek teoria landu aurretik sarreratxo bat egin zuen lanaren laburpen modura. Ondoren, "Hurbilpen teorikoa" izeneko puntuan kode-aldaketa zer den, noiz/zergatik gertatzen den, alternantzia mailak, gazte hizkera... landu zuen; izenak esan bezala, teoria. Jarraian gazte horien diskurtsoaren azterketa egin zuen eta ondorioekin amaitu zuen. Praktikan eginikoa ondorioen hurrengo puntuan dauka jaso. Guztira hiru grabazio egin zituen; lehenengoan eurekin egon zen elkar-hizketatzailea, hau da, elkar hizketak iraun zuen tarte horretan berak ere parte hartu zuen; bigarreanean eta hirugarrenean, aldiz, gazteak euren kasa jardun ziren gidoi eta elkar-hizketatzaile gabe. Bere ikerketan lehen hainbat adituk esandakoa berresten du kode-aldaketaren funtzioak aipatzerakoan. Honako funtzioak aipatzen ditu beste batzuen artean: adierazkortasuna lortzeko, beste batek gaztelaniaz esandakoa jasotzeko, umorea eta kutsu ludikoa lortzeko, zenbait gauza euskaraz esateko gaitasunik eza gainditzeko... **Gaineratzen du nabarmentzekoa dela ingelesaren presentzia ere. Orain dela urte batzuk pentsaezina bazirudien arren, ingelesa ere bere tokia hartzen ari dela diosku, oraindik gaztelaniaren oso atzetik bada ere** (Etxabe, 2010:41/42).

Lierni Etxeberriak Ibarako gazte-hizkeran gertatzen diren kode-alternantziak aztertu zituen; noiz eta nola erabiltzen duten. Horretarako, bi adin tarte aukeratu zituen (12-15 eta 22-25 urte bitartekoak) eta beraien arteko bilakaera eta garapena ikusi ahal izan zuen. Bi grabazio egin zituen, bat talde bakoitzarekin eta 3 neska eta 3 mutil zeuden talde bakoitzeko. Horrela, kode-alternantzia hori ea gaztelerarekin bakarrik gertatzen den jakin nahi izan zuen; ea idatziz eta ahoz berdin gertatzen ote den. Hizkuntzaren zein eremutan ematen den: lexikoan bakarrik edota sintaxian, morfologian eta gainerako eremuetan ere ageri den. Amaitzeko, beste herri batzuetako emaitzekin ere konparatu zuen. Bere lanean alde teorikoa lantzen hasi da lehenbizi (hizkuntza-ukipena, kode-alternantzia eta gazte-hizkera), teoria hori praktikara eramanez ondoren ikerketa baten bidez (helburu batzuk markatuz, hipotesiak eginez, hiztunak zein, nolakoak... diren esanez, tokiko hizkuntza ezaugarriak aipatuz, ikerketa aurrera eramateko metodologia azalduz, transkribaketa irizpide batzuk ezarriz, ahozko jardunaren azterketa eginez, adin-tarte bakoitzaren deskribapena-konoparaketa eginez eta amaitzeko gainerako lanekiko konparaketarekin osatuz). Lana amaitzeko ikerketa horren ondorioak atera ditu eta besteak beste aipatzen du kode alternantziari erreferentzia eginez, **“hizkuntzaren aldaketatzat hartu beharko genuke, eta ez adin zehatz batean gertatzen den errebelaziotzat”** (Etxeberria, 2013:34). Horrez gain, aipatzen du kode-aldaketa egitearen arrazoia ez dela utzikeria soilik, gazte euskaldunek adierazkortasuna bilatzen dutela euren kode-alternantziekin. Izan daiteke umorea txertatu nahi izatea ere edota beste norbaitek esandakoa errepikatzea. Euskararen gabeziak estaltzea dela helburu nagusia dio, beraz, eta hizkuntzaren aldaketatzat hartu behar genukeela eta ez adin zehatz batean gertatzen den errebelaziotzat (Etxeberria, 2013:33/34).

Inmaculada Fernandezek, berriz, Kode aldaketa Durangoko gazteen hizkeran" izeneko lana egin zuen 1992. urtean. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak euskararen statusaren alorreko beka bat eman ostean. Lehenik, kode-alternantziari buruz eman izan diren definizio batzuk aipatzen ditu alde teorikoan. Beste kontzeptu batzuetatik zertan bereizten den eta antzeko kontuez dihardu lehenengo atalean. Ikerketa Durangoko 16-20 urte bitarteko gazteekin elkarrizketak eginez burutu zuen. Hiru neska eta hiru mutilekin, denak euskaldun zaharrak eta bere helburua kode-aldaketaren adibideak aurkeztu eta azaltzea izan zen. Gidoi moduko bat erabili zuen elkar hizketa horiek aurrera eramateko eta gidoi hori oinarri harturik, elkarrizketa informal eta zabalak osatzen saiatu zen. Ondoren transkripzioak egin eta kode aldaketen adibideak ateratzeko. Banakako azterketa egin zuen, eta kode aldaketaren adibideak banatzerakoan, berriz, Gardner-Chlorosen (1991) metodologiari jarraitu zion. Adibideak saailkatu ondoren, funtzio gramatikal eta semantikoetan banatu zitue, aldaketaren ezugarriak aldaketaren ezaugarriak (bai zergatiak bai nolakoak) argitzeko asmoz. Ondorioak hiru puntutan banatu zituen: linguistikoak (hiztegi falata eta esamoldeak nagusitzen dira aldaketaren funtzioak edo zergatiak azaltzerakoan. Gazteleraren eragina/nagusitasunaren seinale), soziolinguistikoak (ez da desberdintasun nabarmenik sexu aldagaia aztertzerakoan) eta hiztunei buruzkoak (**"norberaren izaeraren arabera aldatzen da kode aldaketaren neurria. Beraz, hiztun guztiek kode aldaketaren oinarri edo egitura berak badituzte ere, berritsuagoa edo irekiagoa izatearen garrantzia badirudi ez dela bazter batean uztekoa"**). (Fernandez, 1992:159).

Miren Arantzazu Etxabek hizkuntza aukeraketa edo "code switching"a euskaldunen artean nolakoa den aztertu zuen Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak beka bat eman ostean. Hizkuntza aukeraketak nola jokatzen duen euskaldun

berri eta euskaldun zaharren artean, eta egoera komunikatibo eta sozialarekin duen erlazio estua zein motatakoa den azaldu nahi izan zuen. Hizkuntza aukeraketa edo code switchingaren nozioa eta ikuspegi kronologikoa azaldu zituen lehen atalean. Hizkuntzen arteko ukipenarekin segi, code switchingaren gauzatzea, funtzioak eta ikerketarako erabilitako metodologiarekin amaitzen du lehen atal hori. Ikerketa egiteko aukeratutako eremuaren egoera linguistikoa Urola Kosta izan zen. Horretarako, ahozko elkarrizketak egin zituen egoera komunikatibo ezberdinak kontuan harturik eta galderak zuzenean edo hiztunarekin zuzen loturik zegoen gaia aurkeztuz (komertzioetan, lantegietan eta administrazioan euren ogibideei buruz; familian eta lagunartean, aldiz, momentuko gorabeherak izaten zituzten hizketagai). Ahozko elkarrizketez gain, idatzizko materiala ere aztertu zuen. XX.mende hasierako antzerki lan desberdinak aztertu zituen, herriak erabiltzen zuen hizkera aztertze aldera. Hizkuntza aukeraketen adibideak aukeratu ondoren, hauen sailkapena egin zuen. Ondorio gisa, aipatzen du idatzizko testuetan gertatzen den kode aldaketak ez duela inolako zerikusirik ahozko testuetan jasotzen diren adibideekin. Desberdintasunik handiena kronologikoa dela aipatzen du (grabazioak 1992.urtekoak dira eta antzerki lanak, berriz, XX.mende hasierakoak). Beste pasarte batean honela dio, **“jaso dugun informazioaren arabera, sexua ez da aldagai garrantzitsua... oso aldagai berezia hiri edo kanpo eremuan jaioa izatea da...”** (Etxabe, 1993: E atala).

5. Helburuak

Ikerlan honen helburu orokorra elkarrizketatu/hizlarien kode alternantzia jasotzea izango da batetik (noiz, zergatik eta zertarako gertatzen den), eta euren hizkuntza ohiturak ezagutzea, bestetik. Esan bezala, gidoi moduko bat izan dugu horretarako eta nire egitekoa izan da elkar hizketa horretara bideratzea. Honela, hautatutako adin tarteetan kode **alternantzia aztertu nahi dugu, aurrez badagoela pentsaturik.**

Ikerlan honetan Gabiriako bi belaunaldi ezberdinen grabazioak jaso dira eta honekin konparaketa moduko bat egitea nahi genuen, bai kode aldaketari dagokionez eta baita hizkuntza ohiturei dagokienez ere. Ezezagunekin nola jokatzten duten eta zergatik jakin nahi genuen. Ea ze irizpideren arabera jokatzten duten hizkuntza bata edo bestea aukeratzekoan (zergatia), zerk eragiten duen erabaki hori hartzea eta ea garrantzirik ematen dioten horri edo ez dien buru hauste handirik sortzen.

Helburu zehatzagoetara joz, arnasmune batean zer nolako kode-alternantzia dagoen ikustea interesgarria gerta daiteke eta baita bi belaunaldien arteko aldea ikustea ere; beti esaten baita gazteek gaztelerarako joera izaten dutela.

6. Hipotesiak

Gabiriako bi belaunaldiren kode alternantzia eta hizkuntza ohiturak aztertu nahi ditugu. Lehen beste hainbat lan egin dira honen antzekoak, baina betiere gazte hizkera aztertze aldera. Esaten da gazteek, beste gauza askotan bezala helduei aurka egiteko euren hizkuntza ez dutela zaintzen, baina behin adin batetik aurrera aldatu egiten omen da. Ikusteko dago zer emaitza izango dituen azterketa honek eta baita adinak ze eragin duen horretan ere.

Hala ere, ez dut uste emaitzak lehen egin diren ikerketekin konparatuz gero, hain ezberdinak izango direnik (agian kantitate aldetik?). Guk behatu ditugun lanei erreparatzen badiegu, ikus dezakegu esaterako Getarian eta Durangon azterketak egin ondoren zer zioten, hurrenez hurren, "kode aldaketa hizkuntzaren ezagutzatik kanpo dagoen fenomeno da" (Etxabe, 2005:26), "norberaren izaeraren arabera aldatzen da kode aldaketaren neurria" (Fernandez, 1992:159); edo honako beste hau Ibarren, "hizkuntzaren aldaketatzat hartu beharko genuke, eta ez adin zehatz batean gertatzen den errebelaziotzat" (Etxeberria, 2013:34).

Miren Arantzazu Etxabek 90.hamarkadan eginiko lanean zera zioen, "jaso dugun informazioaren arabera, sexua ez da aldagai garrantzitsua... oso aldagai berezia hiri edo kanpo eremuan jaioa izatea da..." (Etxabe, 1993:E atala). Beraz, honekin eta aurrez jaso dugunarekin aurreikus genezake pertsonen arabera dela. Baina testuinguruak izango du zerikusirik? Baietzean nago, hirian bizitzeak izango du eraginik. Hala ere, herri txikietan eta euskaraz bizi direnetan ere egon, egongo da kode aldaketa. Zenbaterainokoa, ordea?

Ingelesak geurean duen eragina zenbaterainokoa izango ote da? Ez dago esaterik. Hasieran ez dut horretan pentsatu ere egin, baina besteen lanei erreparatzen hasi naizenean batean baino gehigotan topatu dut horri buruzko aipamena eta ikusteko dago zer jasoko dugun. Orain lau urte Goierriko Ordizia eta Zaldibia herrietan eginiko ikerketetan jada agertzen ziren horrekiko aipamenak eta auskalo. Honela zioen Etxabe Azkaratek bere lanean, "orain dela urte batzuk pentsaezina bazirudien arren, ingelesa ere bere tokia hartzen ari da oraindik gaztelaniaren oso atzetik bada ere". (Etxabe, 2010:41/42).

Hizkuntza ohiturei dagokienez, litekeena da hizkuntza bata ala bestea aukeratzekoan ohitura kontua dela aipatzea, ingurua, itxura... Baina oso interesgarria iruditzen zaigu euren iritzia jasotzea. Belaunalditik belaunaldira ere jarrera aldaketa nabaria izango da?

7. Ikerketaren nondik norakoak

Arnasgune bateko, gure herria den Gabiriako, bi belaunaldiren arteko kode-alternantzia eta hizkuntza ohiturak aztertu nahi ditut. Lau elkarrizketa/hitz aspertu egiteko asmoa dago, beti ere lehen-hizkuntza euskara dutenekin. Esan bezala bi belaunaldirekin, bata 15/19 urte bitarteko gazteekin eta bestea 32/37 urte bitarteko helduekin; belaunaldi bakoitzeko bi talde osatuaz. Talde bakoitza lau lagunekoa eta bi neska eta bi mutil ez osaturikoa izatea aurreikusten dugu. *Audacity* programa erabiliko dugu bi taldeen hitz jariora grabatzeko eta momentuz Gabiriako Osinalde Elkartearen egitea aurreikusten dugu. Han bada bilera gela bat eta gure ahotsak soilik entzutea nahi dugunez, toki aproposa eta nahiko informala iruditzen zait. Gerta liteke, ordea, bi taldeetako batek beste tokiren bat proposatzea. Hala izanez gero, horretan ez dut arazorik ikusten.

Gabiria herri txikia izanik jakina da talde horietan batzen diren guztiek aurrez elkar ezagutuko dutela, beraz, "berezko taldeak" deiturikoak izango dira. Hizkera informala jaso nahi dugu hitz aspertu horietan, herrikideen arteko ohiko hizketa jaso nahi dugu ahalik eta era naturalenean arituz. Hori horrela izateko, ez diegu esango euren hizketa aztertuko dugunik, horrek euren hizkera zaintzea ekarriko bailuke eta ez da hori gure intereseko. Gauzak honela, hitz aspertuak irauten dueneko orduan ahalik eta giro gertukoena eta informalena izatea ere gure esku egongo da.

Lau taldeei unibertsitateko lan bat egiteko Gabiriako jendearen ohiturak jakin nahi ditudala esango diegu eta hitz egindakoa grabatua izango dela. Gidoi bat prestatuko dugu (eranskinetan dagoena), baina betiere gutxi gorabeherako zerbait izango da; nolabait ere guk nahi dugun horretara iristeko bidea markatuko diguna: ohitura orokorretatik

hasi eta hizkuntza ohituretara salto egitea da asmoa. Hala ere, gaia eurek nahi bezala garatzeko aukera utziko diegu. Horretarako, gidoi edota puntu horiek izango ditugu eskura eta horrela sortuko dugu elkar hizketa. Hitz aspertuaren bukaerarako (hizketa-gaia ez baldintzatzeko) galdetegi bat (hau ere eranskinetan dago) prestatu dugu "ezagunekin" dituzten ohiturak identifikatzeko. Aurrez ere hitz egingo dugu hizkuntza-ohiturez, baina batez ere "ezezagunekin" ze ohitura ditugun hitz egingo dugu. Bizitzako egoera ezberdinak planteatuko dizkiegu eta nola jokutzen duten eta zergatik azaldu beharko dute.

Hiztunen ezaugarriak aipatzen hasita esan behar da, behin elkar hizketak egiterakoan, gaztetxoenen taldean beste bi mutil batu zitzaizkigula. Honela **15/18 urte** bitartekoekin eginiko lehen elkar hizketa saioan 2 neska eta 4 mutil zeuden. Bigarren taldean, berriz, ez zen beste bisitaririk agertu eta aurrez hitz egin bezala, 2 neska eta 2 mutil elkartu ginen. DBH egiten ari dira 10 lagunetik 5, beste 4 batxilergoa egiten eta bat unibertsitate ikasketak egiten hasia da jada. Horietako **baten aita izan ezik, beste guztien aita-amak euskaldunak dira**. Etxean darabilten hizkuntzarekin ere gauza bera gertatzen da, hau da, **etxe batean** (zehazki aita erdalduna den etxe horretan) **bi hizkuntzetan hitz egiten da, baina beste guztietan euskaraz**. **Lagunartean euskara** darabilte guztiek, baina **eskolan 3 pertsonak bi hizkuntza** erabiltzen dituzten **eta besteek euskaraz soilik** hitz egiten dute. **Musika bi hizkuntzetan** entzuten dute, **baita telebista ikusi/entzun** ere. **Egunkaria**, berriz, **6 lagunek bi hizkuntzetan** irakurtzen dute eta **besteek ez dute egunkaririk irakurtzen**.

Zahartxoagoekin, hau da, **32/36 urte** bitartekoekin 4 neska eta 4 mutil elkartu ginen. Ikasketei dagokienez, esan behar da denetik zegoela eta zer esanik ez ofizioei erreparatuz gero. Batxilergoa duten bi lagun zeuden, FP 2 arotza egindako beste bat, goi-mailako metal

eraikuntzak ikasketak eginiko beste bat, graduatua duen beste bat, lizentziatura duen beste bat, ingenieritza eginiko bat eta L.H/H.H eta psikopedagogia egindako azken bat. Esan bezala, denetik. Ofizioei erreparatzen badiegu, 3 irakasle ditugu, modelista bat, aroztegiko enkargatu bat, soldatzaile bat, zerbitzari bat eta langabezia dagoen beste bat. Gauzak honela, **guztien aita-amak euskaldunak dira. Etxe batean bi hizkuntzetan** hitz egiten da, **beste guztietan euskaraz. Lagunartean ere berdin,** batek bi hizkuntzetan hitz egiten du eta besteek euskaraz. Lanean gauzka pixka bat aldatu egiten dira eta hau oso adierazgarria da. **Batek** soilik hitz egiten baitu **euskaraz, beste bik gaztelera hutsean eta gainontzekoek bi hizkuntzetan.** Entzuten duten **musikari erreparatuz gero,** esan behar da **3 pertsonak euskara hutsean** entzuten dutela, **lau lagunek bi hizkuntzetan eta beste batek ingelesez soilik. Telebista batek euskaraz bakarrik** ikusten/entzuten du, **eta gainontzekoek bi hizkuntzetan. Egunkariak irakurri, berriz, batek euskara hutsean, beste bi lagunek gaztelera hutsean eta besteek bi hizkuntzetan.**

8. Informazioa lantzeko software-a

Audacity® askea, erabilerraza eta bide - anitzeko audio editatzaile eta grabatzailea da Windows, Mac OS X, GNU/Linux eta beste sistema eragile batzuetarako. Horrez gain, interfazea hizkuntza akotara itzulita dago. Audacity programa, besteak beste, zuzeneko audioa grabatzeko erabil dezakezu; baita ordenagailuan bertan entzuten ari zarena grabatzeko ere (baldin eta Windows Vista edo berriagoa baduzu); grabazioak edo kaseteak audio digital edo CD bihurtzeko ere balio du; WAV, AIFF, FLAC, MP2, MP3 edo Ogg Vorbis soinu agiriak editatzeko ere bai; audioak ebaki, kopiatu, batu edo nahasteko; grabazio baten abiadura eta doinua aldatzeko...



9. Transkripzio irizpideak

Transkripzioak egiteko erabili ditudan irizpideen azalpena emango dut honako atal honetan. Alde batetik hizkera naturala mantendu nahi izan da eta bestetik, ahalik eta ulergarrien izateko moduan jartzen saiatu gara. Honela,

- Adibide bakoitzaren aurretik, labur bada ere, euskara batuan zertaz diharduten idatziko dugu.gazteleraz den bezala idatziko dugu kurtsibaz. Bestela, ahoskatzen den bezalaxe. Adibidez osea, eske...
- Aztertzen ari garen kode aldaketa
- Pasarte ilunak, hau da, zer esaten duten garbi ulertzen ez direnak honela markatuko ditugu [XXX].
- Transkribatu gabe gelditzen diren zatiak, berriz, honela (...)
- Barrez ari direnean honela markatuko dugu KAR, KAR, KAR
- H hizkia beti agertuko da, hitz bat laburtuta esaten badute ere H jarriko diogu. Beti ere, ulergarritasunari begiratuta. Adibidez lehen, lehenbailen...
- Ezezko formak beti elkartuta idatziko ditugu, ordea. Adibidez eztue, eztiolako, etzala...
- ERE eta GABE partikulak beti aparte idatziko ditugu. Berdin izango dio zein modutan agertzen diren. Adibidez oain e, gero re, geldittu be, gogoi pe...
- E askotan erabiltzen da esaldien amaieran ohartarazteko helburuarekin eta horrelako kasuetan "eh!" erabiliko dugu. Esaldia ulergarriagoa gertatze aldera. Adibidez, eztek asko garbitzen oaiñ e eh! Baina E eta isilunea badago hiru puntu jarriko ditugu. Adibidez, aurreko baten e...
- Bustidurak ahoskatu bezala idatziko ditugu. Honela, N, T eta L hizkien aurretik I hizkia baldin badago, Ñ, TT eta LL bustidurak

markatuko ditugu hurrenez hurren. Adibidez baiño, oillaskoa, seittun, zaittu...

- Adizki perifrastikoak apostrofe bidez bereiziko ditugu aldaketa fonetikoren bat dagoenean edota hizkiren bat galtzen den kasuetan. Adibidez idazte´o, jun´tzan, pasatze´a...
- N galtzean garbi ulertzen bada, bereizita jarriko dugu beti bezala. Adibidez esate non, kantatze zon... Aldiz, esanahia ulertzeko zailtasunak daudela nabaritzen dugunean N kortxete artean jarriko dugu. Adibidez ju[n] nitzen, eo[n] naiz... Hitzak elkartzen direnean aldaketa fonetiko badago edota esanahia ulertzea kostatzen bada, berdin jokatuko dugu. Adibidez, autobuse [d]aukeu, eitte´[d]ue...
- Beste batek esandakoa aipatzen dutenean kakotx artean adieraziko dugu.

10. Ahozko jardunaren azterketa

BILDUTAKO INFORMAZIOA

ETENGABE ERABILTZEN DITUZTEN GAZTELERAZKO PARTIKULAK

- Diskurtsoa antolatzeakoak

O SEA / O SEA QUE Grabaketa hauetan gehien entzun dugun partikula da. Oso barneratua dago eta azalpen bat emateko, aurretik esandakoa berriro argiago uzteko edota aurrez esandakoa zuzentzeko erabiltzen da. Euskarazko baliokidea "alegia" litzateke, baina ez kasu guztietan. Askotan, makulu gisa ere erabiltzen da. Hona zenbait adibide:

15/19 urtekoak

1.taldea

1.adibidea

Euren ikasketei buruz ari dira eta baita etorkizunean dituzten asmoei buruz ere. Lehenengoan aurrez esandakoa argiago utzi nahi du eta baita bigarreanean ere.

N.1.1 – Gu oaindio laugarren DBHn gare, *o sea* obligatorioa da!

M.1.2 - *O sea* oaiñ ya laugarren DBHn gare eta ya hurrengo urten aukerau eingo deu Goierria jun o ez.

2.adibidea

Parrandara joateko dituzten ohiturei buruz ari dira honako honetan. Aurrez esandakoari informazioa gehitu nahi dio.

N.1.2 – Ni re Durangoa ju[n] nitzen Kalera Rockea aurreko asten. *O sea* holakota moitze[n] gea.

3.adibidea

Euren arteko lagun giroari buruz dihardute beste honetan. Argiago utzi nahi du aurrez esandakoa.

M.1.4 – Beti ondo eaman ezkeo, *o sea* beti pozik eon ezkeo, hoi zurikerie dek.

2.taldea

1.adibidea

Hizlarietako batek Miyuki izeneko pultserak egiten ditu eta hori azaltzen ari da adibide honetan. Aurrez esandakoa zuzentzeko darabil oraingoan.

N.2.1 – Ba miyuki die pultsera hoiek, *o sea* pultserak ez, bolitak; eta bolitak juntauta pultserak.

2.adibidea

Honakoan, berriz, twiterrari buruz ari dira. Azalpena emateko erabiltzen du, aurrez esandakoa argiago uzteko.

N.2.2 - Jende idazte´o ba eitten ai dana o... jende batzuk asko idazte´o, hori bai. *O sea*, esaten due ba ze ai dien eitten denbora oson da hola. Baiño beste batzuk...

3.adibidea

Eskolan gaztelerak duen eraginaz ari da oraingo honetan mutil hau. Azalpena emateko erabiltzen du birritan, baina makulu gisa aldi berean.

M.2.1 – Igual klasea eman behar due, *o sea* klasen barrun sartu, *o sea* gaiei buruz danen ez baiño igual aparte... Igual bronka botatzen hasten danen erderaz! Bestela euskeraz.

3.taldea

1.adibidea

Komertzial lanari buruz ari da. Hizlarietako batek bere esperientzia kontatu du eta beste honek gaiari buruz zer pentsatzen duen adierazi du. Bere diskurtsoa zuzentze aldera darabil lehenengoan. Bigarreanean, berriz, aurrez esandakoaren ondorio-azalpena ematen du.

(...)

N.3.1 - Nei behintzet, *o sea* biolentoa eitten zitzaian hori, *o sea* ni re enitzen gustoa juten.

2.adibidea

Hizkuntza eskolan egiten dutena azaltzen ari da. Azalpena ematen ari dela makulu gisa erabiltzen du lehenengoan. Bigarreanean, ostera, aurrez esandakoa nabarmendu nahi du eta tonuz aldatzen du.

N.3.2 – *O sea* klaseko azkeneko ordu erdi baten eman zizkiun (...) e... frantsesez janari guztik, *o sea*, danak!

3.adibidea

Komertzial lanean aritu behar izan zueneko kontakutzen ari da. Azalpen baten erdian makulu gisa darabil.

M.3.1 – (...) Ez huan gure lana! *O sea* esate genduan, bestela hartu komertzial bat! (...)

4.taldea

1.adibidea

FAGOR enpresari buruz ari dira hizketan, langileen errekolokazioei buruz hain zuzen ere. Makulu gisa erabili du lehenengoan, bigarrenenan beste azalpen bati bide eman dio.

M.4.1 – (...) *O sea*, de repente ematen diozu lavadora baten 2 milimetroko txapa bat edo, eta zulau eiten due. Ezin due, eztakie. Guri kostatzen zaiu gure puntue hatzea, pixkat dakiunok. *O sea*

dakie eramaten kamioia primera, segunda ta aurea juteko, baiño gero ez diozu esijittu behar aparkatzea edo atzeaka... (...)

2.adibidea

Ezezagunekin darabilgun hizkuntzari buruz ari da. Zuzendu egin nahi du edo beste modu batera esan aurrez esandakoa eta horretarako erabiltzen du.

N.4.1 – (...) Baiño askok gustoa seitzen due re bai, ezta beti... eztola... *o sea*, entenditzen donak euskera ta nahiz ta erderaz, nei hoi iruitze zat.

3.adibidea

FAGOREko errekolokazioak direla eta bere ikuspuntua ematen du. Lehenengoa makulu gisa erabiltzen du. Bigharrena azalpena eaten jarraitzeko erabiltzen du eta bukaerako azalpena garbi uzteko.

(...)

M.4.2 – Gaiñea hori! *O sea* ta gero nola nahi due crisisik ez eotea! *O sea* nik eakutsi behar diot ni lanetik bialdu behar naunai? Ba prepau deikezu ze ezta labadora bat en la puta vida funtzionatzen dola ertengo! *O sea*, garbi!

ES QUE Hau ere ikaragarri erabiltzen da. Guri beti esan izan digute eske eskaleak ibiltzen direla! Azalpenen bat eman behar denean edota kexa adierazteko ere erabiltzen da. BAINAren ondoren erabiltzen da askotan makulu gisa. Zenbaitzuetan baita harridura adierazteko ere. Oso barneratua daukagu. Euskarazko baliokidea "izan ere" litzateke, baina ez beti hala ere.

1.taldea

1.adibidea

"Au Pair" delakoari buruz ari gara; besteak beste, Ingalaterran eta Irlandan ingelesa ikasteko dagoen aukera bati buruz. Kasu honetan azalpena emateko erabiltzen dugu.

NI – Jo, *es que* ni re eo[n] nitzen tentauta holako zerbaitt eitteko, baiño...

N.1.2 – *Es que* nere laun bat e jun´tzan ta gustoa, oso gustoa!

2.adibidea

Oso begiko ez dituzten pertsona batzuei buruz ari dira. Kexa adierazteko erabiltzen du.

M.1.4 – Lehen hor´tzerean!

N.1.2 – Bai, gaur igo omen die!

M.1.1 – Kixton konbersazioa eduki deu!

N.1.1 – *Es que...*

3.adibidea

Telefono mugikorra dela eta ez dela ari dira.

N.1.1 – Bate be, hobe da ez eostea hasiera hasieratik mobbille.

N.1.2 – Baiño *es que* baita bate be etzare komunikauta.

M.1.1 – Baiño *es que* mobbillekin kontrolauta zare!

2.taldea

1.adibidea

Pasarte honetan ETB 1eko Goenkale telesailari buruz ari dira hitz egiten. Nolabaiteko kexa adierazi nahi du telesailarekiko eta horretarako baliatzen du kasu honetan.

M.2.2 – Nik ezin diat ikusi, *es que* etziek... haste neok eta 5 minutua ia kendu itten diat, ezin diat. Oso aktore txarrak iruitze zaizkiak, *es que...*

2.adibidea

Adibide honetan ere kexa adierazi nahi du, kasu honetan ETB da biktima.

N.2.2 – *Es que*, lenau gauza gehio zeren!

3.adibidea

Euren gazte lokaleko gora beherei buruz ari dira; zehazki esanda garbiketari buruz. Azalpen bat emateko erabiltzen du.

N.2.2 – *Es que* askotan pasatze´a, batzuk garbitzen due ba bestek garbittu eztuelako, ba batzuk bronka botatzen die bestei. Baiño igual beste baten alrebes ta hola... nik uste oantxe bertan danok garbitzen deula.

32/36 urtekoak

3.taldea

1.adibidea

Gero eta gutxiago irteten direla parranda egitera, nahiago dutela beste zerbait egin eta horrelako kontuak esan dituzte. Hona jarraipena,

(...)

M.3.2 – *Es que* problema hoi dek. Irtetzeko kriston pereza ematen do, baiño behin irtenda pixkat animau ezkeo...

2.adibidea

Hizlarietako batek kontatu du 18 urte daramatzala lanean enpresa berean. Honela hasi dira besteak. Arrazoia ematen dio batek, baina aldi berean kexa ere adierazi nahi dio.

M.3.1 – Ostia oaiñ tristea baiño egie esan oaiñ 18 urte lan baten aguantatzea´ek...

N.3.2 – Eta leku igualen eh!

N.3.1 – *Es que*, hoi ba!

3.adibidea

Telefono mugikorrarekiko mendekotasunari buruz ari da. Kexa adierazteko erabiltzen du.

N.3.2 - Ni goatzen naiz lehenengo aldiz, nik Bilbon ikasi nun da Bilboa ju[n] nitzen garaien amak ba, mobile hartu kontaktun eoteko (...) Ta oaiñ? *Es que* ezin naiz iñoa jun!

4.taldea

1.adibidea

FAGOREko errekolokazioei buruz ari dira berriketan. Nolabaiteko kexa adierazi nahi du honako honetan ere.

(...)

M.4.2 – Gaiñea hori! Osea ta gero nola nahi due krisisik ez eotea! Osea nik eakutsi behar diot ni lanetik bialdu behar naunai? Ba prepau deikezu ze ezta labadora bat en la puta vida funtzionatzen dola ertengo! Osea, garbi!

N.4.2 – *Es que* ze gogoia euki behar dezun!

2.adibidea

Orientatzaile batek emaniko gomendioak kontatzen hastear dagoela ematen da kasu honetan. Arrazoia ematen dio kexa tonu bat erabiliz.

M.4.2 – Institutoa bukau nian eta instituton bazeoan desorientadore bat...

KAR, KAR, KAR

N.4.1 – Baño *es que* hala die!

3.adibidea

Irakasle lanean bizitako istorioei buruz ari gara hitz egiten. Lehenengoan kexa adierazteko darabil eta horri indarra emateko birritan eraabiltzen du. Bigarreanean ere kexa adierazteko darabil.

N.4.2 – Akordatze naiz, zapatak mahai gaiñen jartze zizula ijitto batek...

N.4.1 – Bai! *Es que, es que* bai, ijittokin istori pilo bat dare! Hor aurreneko eskolan gustoa ibili nitzen, baiño gero beti zan ba hoi, ordezkapen bat, 11 eun hemen, 6 eun hemen, Bizkaian...

NI – Guk hori re eztaukeu Leire!

N.4.1 - Ya! *Es que* oaiñ dau okerrago, bai.

A VER Zehar galderetan erabiltzen da, euskaraz bere baliokidea “ea” da, baina oso gutxi erabiltzen da. Zerbaitetaz ohartarazteko ere erabiltzen da.

15/19 urtekoak

1.taldea

1.adibidea

Bere ikasketei buruz ari da hitz egiten. Kasu honetan ohartarazteko erabiltzen du.

N.1.2 – *A ver* ba empresariales hasi naiz eitten, o sea hasi nitzen irailen eta ikusi non etzala nerea ze estadistika, matematika...

2.adibidea

WhatsApari buruz ari dira elkar hizketan, bere erabilerari buruz hain zuzen ere. Ohartarazi egin nahi du eman behar duen azalpena entzun dezan.

N.1.1 – Bai, eztakitt... Askotan!

NI – Ze, geldittu re ein be?

N.1.1 – O sea, *a ver* geldittu re ein be, ez denbora oson baiño...

3.adibidea

Elkar hizketari hasiera ematerakoan, zehar galdera gisa erabili nuen. Eurek kasu egin ziezadaten nahi nuen.

NI – Bueno ba hoixe! Nahi´zuen! Hasi, hasi´hai Joseba! *A ver* zein...

2.taldea

1.adibidea

Hizlariak bildu aurretik euren artean izandako gaizki ulerturen bat ari dira komentatzen. Zehar galdera gisa erabiltzen du bi aldiz.

M.2.2 - Hik esan dek 5etan o...

M.2.1 – Ez, *a ver* nun ´tzendeten!

M.2.2 - Baiño 5terditan zian ba!

M.2.1 – Bai, baiño esan diat sin mas. *A ver* norbaitt kanpon bazeoan o. Ze honea etorri neok... Hauek zea eitten ai zittuan!

2.adibidea

Beste adibide honetan WhatsApari buruz ari da. Zehar galdera gisa erabiltzen du.

M.2.1 – Esamiñan bat daonen ba klasekokin zea eitteko. Igual papelen bat falta bazazu ba argazkie zea eitteko, argazkie eakusteko o... Igual papelen bat eskolan ahaztu zazu, ba klaseko talde esatezu *a ver* norbaittek atea deiken argazkie ta...

3.adibidea

Bere egunerokotasunari buruz hitz egiten hasi da. Esan behar duenaz ohartarazi nahi ditu besteak.

N.2.2 – *A ver* ba eunero eskola jun goizetan, e... gero astelehen, astearte ta osteunetan eskolan geau bazkaltzen...

32/36 urtekoak

3.taldea

1.adibidea

Honako honetan bere lan esperientzia kontatzen ari da. Enpresa batean kobratu gabe lan egiteko eskaini ziotenekoa. Ohartarazteko erabiltzen du, tonua aldatuz gainera.

N.3.1 – Ta *a ver*... Ze esaten ai zea? Segi behar detela lanen eta kobrau be? Eta bueno, azkenen e... despedittu ein nindun eta hobe!

2.adibidea

Berak izandako lan esperientzia bat kontatzen dihardu. Adibide honetan ere ohartarazteko erabiltzen du. Eman beharreko azalpena eman aurretik ohartarazi egin nahi ditu.

M.3.1 – (...) Ni ta beste bat, aparte, gure lana eittetik aparte, dibujo ta diseiñue eittetik aparte ba *a ver...* telefonoa hartu; pum, pum, pum! zita bat zeatu, lortu eta benga, goazen tipoa ikustea! Goiz bat pasau (...)

3.adibidea

Honakoan zehar galdera moduan darabil.

N.3.1 – (...) Anek galdetu dio *a ver* aste santutan "al pueblo" jungo gean eakiñ da esaten zon galdetu eiñ beharko dola ze eztakilla nola ibiliko ´an.

4.taldea

1.adibidea

Ikasteko bere ohitura edo ohitura ezei buruz ari da. Ohartarazteko erabiltzen du adibide honetan.

M.4.2 – (...) Nik sekula eztiat ikasteko balio izan! O sea, *a ver*, gauzak errez hartze nittuan, baiño ikasteko zea hori...

2.adibidea

Orain diharduen lanean nola hasi zen kontatzen ari da. Kasu honetan, pertsona berak zehar galdera gisa erabiltzen du.

M.4.2 – (...) Joxek zukiñ lenau re hitzeinda zeola ze o zer ta *a ver* etorriko ziñeken. (...)

3.adibidea

Eskolan entzuten diren hizkuntza ezberdinei buruz dihardugu. Ohartarazteko darabil.

N.4.1 – (...) Beasaiñen asko hitz ´eitten da erderaz, asko. Markelen gelan adibidez, ba eongo die 4 edo 5 bat guraso euskeraz eztakienak ta asko erderaz e ez! Ba ukrainianok edo rumanok edo... Ta Markelek bere gelako horiri erderaz eitten die. Euskeraz ein partez, eak umek,

erderaz. Ta laixte rumanoz hasiko zat! Joe, *a ver...* Ta beida inportantzie ematen diela euskerai eskolan da eztaikit ze, baiño alperrik da (...)

BUENO Beste partikula hau ere testua antolatzeko erabiltzen da. Oso barneratua eta aldi berean onartua dagoela esan dezakegu. Birformulatzailea dela aipatzen du Etxeberriak (Etxeberria, 2013); honela, hiztunak gaia aldatu, zuzendu edota berreskuratu dezake (2013: 16). Desadostasuna adierazteko ere zenbaitzuetan erabiltzen dela esan daiteke (euskarazko "ez dakit bada" adierazi nahi dugunean). Askotan "baina" hitzaren aurretik edo ondoren erabiltzen da.

15/19 urtekoak

1. taldea

1. adibidea

Euskarari buruz ari direla, parrandetan euskarak duen presentziaz dihardute honako honetan. Lehenengoan gaia zuzendu nahi duela esan dezakegu, berak pentsatzen duen erantsiz eta bigarreanean, jada aurrez esanikoa berreskuratzea da bere xedea.

M.1.3 – *Bueno*, baiño juergatan notatze´zu, tabernata sartzen zea ta erdera aitze´zu ta txoznata sartu ta...

N.1.2 – Según baita eh!

[XXX]

M.1.2 – Juergatan asko eztezu aitzen eh! Esan beharra dau, musikakin da...

M.1.3 – *Bueno*, baiño aitze´ek! Ondon daukekena ta aitze´ek.

2.adibidea

Bere futbol taldean ze herritako jendea dagoen azaltzen ari da. Berak aurrez esandakoa zuzentzeko erabiltzen du.

M.1.2 – Ekipon Segurakok bertakok, gero Zeamakok eta oaiñ asko Beasaingok baita. Txarrak dienak eh! Gero ataundar batzuk e bai, Gabirikok beste batzuk, *bueno* oaindio ez baiño...

3.adibidea

Parrandarako izan zuen asmo bat kontatzen ari da. Gaia berreskuratu nahi duela esan daiteke, berak esandakoari jarraipena emanaz.

M.1.3 – Berez saardotei intentzioa neukian, baiño azkenen ez giñutzean jun baiño *bueno*, behintzet juerga bota genian ta...

2.taldea

1.adibidea

Gazte lokaleko euren arteko desadostasunak aipatzen hasten da. Gaia zuzendu nahi du, bere ikuspuntua zein den agertuz.

M.2.1 - *Bueno*, eske lokalen garenen igual batzuk Play stationen ibili nahi due ta bestek hitz eiñ nahi due ta bestek hobbyten ibili nahi due ta azkenen ze pasatzea, ba bat hasten dala diskutitzen eta bestek segi eitten dio. Ni barne!

2.adibidea

WhatsApari buruz ari dira oraingoan ere. Besteak esandakoarekin desadostasuna adierazi nahi du adibide honetan.

M.2.2 – Lehen, watxapa etzeoanen eitte genian iguala.

M.2.1 – *Bueno...*

N.2.1 - Ohittu ein gea!

3.taldea

1.adibidea

Autoan irratia, CDa edo dena delakoa entzuten dutela berriketan dihardute. Bietan desadostasuna adierazteko darabilte eta bigarrenean gainera birritan esaten du kexa tonuz.

M.3.1 – Jo! Jendek CDk eta aitzen dittu, nik ezin det!

N.3.2 – Ni e bai eh!

N.3.1 – Nik oain bai! Traiekto motxetako bai!

M.3.1 – Ni aspertu eitte naiz CDkin!

N.3.2 – *Bueno*, ya CDa ez! Ya USBa...

M.3.1 – *Bueno, bueno...*

KAR, KAR, KAR

M.3.2 – Nik radioa beti. Kotxea sartu ezkeo pentsau re ein be pizte ´et!

2.adibidea

Komertzial lanean ibilitako garaiak azaltzen ari dira. Birformulatzeko erabiltzen du kasu honetan bi aldiz. Gaia berreskuratu nahi duela esan daiteke bietan. Lehenengoan beste batek esandakoarekin jarraitzeko eta bigarrenean berak esandakoari segida emateko.

(...)

N.3.1 – *Bueno*, hori lortu dezuneako... Ni puerta a puerta ibiltze nitzen! Hori bai dala...

M.3.1 – Ez, ez guk aurretio, aurretik hots eiñ, hau bestea interesatzen zazu? Ez, etzat interesatzen ta *bueno*, azaldu! Juten ziñen eta ikuste zendun etzeukela interesik baiño *bueno...* (...)

3.adibidea

Bere esperientzia pertsonala ari da kontatzen. Ikasketak non egin zituen... Nik eginiko galdera birformulatu eta berriro gaiari heltzeko erabiltzen du.

NI – Nun ikasi huan hik Beñat?

M.3.2 – Altsasun! *Bueno*, Ormaiztitik Goierria ju[n] nitzen bi urte, FP uno Goierriin ei[n] nun ta 2.a beste 3 urte, Altsasun. (...)

4. taldea

1. adibidea

Ikasle garaiko istorioekin ari dira eta gaia birkokatzeko erabiltzen duela esan daiteke. Gaia berreskuratzeko darabil, birkokatu eta jarraipena ematen diolarik bere diskurtsoari.

N.4.2 – Nik banekiñ ez nola izan nahi andereñoa. Hasi nitzenetik, baiño haiñ ondo neon!

KAR, KAR, KAR

NI – Bilbon, ez?

N.4.2 – Bai, oso ondo pasau nun! Egie da! Recuerdo onak dauzket!

NI – Ze eon ´tziñeten pisun baten?

N.4.2 – Bai! Maialenekin eo[n] nitzen eta beste 3 neskakin...

N.4.1 – Oaiñ jarriko ´izut Markel ikasten Bilbon, pisue pau beharren...

KAR, KAR, KAR

N.4.1 – Leire, Markel jaio zanen iriki gendun kontu bat eta esan gendun *bueno* nola ezutze gean... hilabetero hilabetero...

2. adibidea

Ingelesa ikasten jardun zenekoa ari da kontatzen. Berak egindakoari garrantzia kentzearen erabiltzen du.

N.4.1 – (...) Eta hori ikasten ai nitzen bittarten sartu zitzaiten burun inglesa ikasi behar nula.

KAR, KAR, KAR

N.4.1 – Ordun hasi nitzen ingleseko akademia juten da hola, ikasi nun, burun sartu zitzaiten inglesa, eta Irlandan e iza[n] nitzen, 2 hillabete ta erdi ei[n] nittun bakarrik, ez asko baiño *bueno*...

3.adibidea

Euskaraz egiten diren itzulpen baldresei buruz ari da. Tonua altxatzen du bukaeran, hitz hori markatuz. Esaldia bukatu gabe uzten du, baina tonu horrekin hitz hori erabiliz esan balu bezala ulrtzen da.

(...)

M.4.1 – Batzutan igual eztakit...

[XXX]

NI – Ez baldin badek traduzio oso alrebesa ulertzen dek!

M.4.1 – Adibidez nik ikasi nunen goi-mailla, liburu bat bialdu zioten norbaiti itzultzea. Eztakit zeñi! Ta itzuli zun ta puf! Karo, etzioten esplikau nola itzuli behar ´tzun edo itzuli zun eta *bueno...*

CLARO Darabilgun diskurtsoa antolatzeko erabiltzen dugu. Azalpen bat ematerakoan baieztapena adierazteko edo esan beharrekoa jakina edo ezaguna dela adierazteko erabiltzen da. Ez da hainbeste erabiltzen gazteen artean, helduek gehiago darabilte edo hala jaso dugu guk behintzat. Euskaraz "noski" edo "jakina" izango litzateke.

15/19 urtekoak

1.taldea

1.adibidea

Hizlarietako bat egunkarian azaldu da herrian bertso eskolak ematen dituela-eta. Adarra jotzen hasi gara eta defentsa lanetan hasi denean egin du kode aldaketa.

NI – Ta hik Aitor, bertsoan?

M.1.4 – Ba, hainbesten! Ze o ze eitten diau.

NI – Oaiñ gaiñea egunkarin da hitzan da hor azaltzen hasi ´a ta bueno, oaiñ ia guri eztizkiu holako gauzak kontauko.

KAR, KAR, KAR

N.1.2 – Ya, egie da!

M.1.1 – Gizon solizitatue da!

M.1.4 – Nahi bazue pauta bai, baiño *caro* eskusibea!

32/36 urtekoak

3.taldea

1.adibidea

Honako hizlari hau irakaslea da eta izan duen esperientzia kontatzen ari da. Aurrez emandako azalpenari jarraipena ematen dio, aldi berean afirmatzeko aprobetxatuz.

N.3.2 – (...) Nik hartu non plaza Urretxun ta 15 egun ei[n] nittun eta hots´ein ziaten Lesakatio, ya delegaritzatio, ya Haur Hezkuntzan lana eitteko. *Caro* azkenen baldintzak, Haur Eskolan lan eitte´zun garaien, uztaien, lana ein beharren daukezu ! Eta besten ez!

2.adibidea

Hizkuntza eskolei buruz ari da. Esan behar duena ezaguna dela adierazten du. Iparraldean "bistan dena" erabiltzen dute,

N.3.2 – (...) Ni aurten frantsesea! Nik inglesekoa B2 atera non eta esan non ba, ba aurten frantsesea apuntauako naiz. Ta *caro*, zero! Nik iñoiz ez tet eman frantsesa! (...)

3.adibidea

Hizlarietako batek bere gelan telefono mugikorrekin duten arazoa azaltzen du. Beste batek aurrez esandakoa baieztatu eta berak esan beharrekoa antolatzeko erabiltzen du.

(...)

N.3.1 – Danantzako radio kaset bat eaman eta kitto!

N.3.2 – *Caro*, danantzako jarri caseta!

M.3.1 – Bai, hoixe!

4. taldea

1. adibidea

Hizlarietako baten eguneroko lanari buruz ari gara berriketan. Afirmazio hutsa egiteko darabil beste kasu honetan.

NI – Hik antolau behar dek denborea?

N.4.2 – Atxaldeko 6etan geldittuta baldin bazare Ortuellan eztaikit zeñekiñ...

M.4.2 – *Claro!* Eske hoi da asuntoa! (...)

2. adibidea

Iraganean izandako lan bati buruz azalpenak ematen ari da. Azalpena ematen ari dela darabil, makulu gisa darabilela esan daiteke.

M.4.1 – (...) Gero bi urte eo[n] nitzen lanen Astigarragan. Gero Astigarragan lanen neola, *caro* irabazten nun kriston gutxi.

3. adibidea

FAGOR enpresako langileen errekolokazioen ondorioei buruz dihardute. Eman beharreko azalpena lotzeko darabil lehenengoan eta bigarrenean, berriz, afirmazio huts bezala erabiltzen du.

(...)

M.4.1 – Hala re esan due, *caro*, franja unok franja dosi suministratzen dio. Ba soldatzen deunai, e... plegatzen deunai, kurbadoran. Ta esan due, eztaikit datuk baiño % 50eko fallok baldin bazeuden, oaiñ 300 daude!

Ane – Zenbat ?

Unai – 300!

Oier – Fallok?

Unai – *Caro!* (...)

ASI QUE Gazteenei ez diet adibide bakar bat ere entzun. Hala ere, dezente entzuten dela esan dezaket. Esaldien bukaeran erabiltzen da gehienbat, esaldia bukatu gabe utziaz. Euskarazko “orduan, beraz, hortaz...” litzateke.

1.taldea

1.adibidea

Ze hizkuntzatan irakurtzen duten egunkaria / entzuten irratia galde egin diegu eta honakoa erantzun du batek.

(...)

N.1.1 – Euskeraz, bestela ezteu ulertzen *asi que...*

3.taldea

1.adibidea

Nonbaiteko eskolari buruz ari dira hizketan.

N.3.2 - Gero, e... instituto garaien eta hor ustet monjak eta darella eta oaindik erderaz emate ´ittuela klasek, *asi que...*

2.adibidea

Irakasleen ordezkapenei buruz ari da.

N.3.2 – (...) Azkeneako ya igual ordezkok etortzen dien garaien eske batzutan igual ezta izena re galdetu re eztiozu eitten porque, eske interesik e ez ya! (...) *Asi que* 18 urte!

EN PLAN Erdarazko makulua, oso berria eta gehienetan edo ia beti alferrikakoa. Grabazio hauetan kasu bakarra atzeman dugu, baina gero eta gehiago erabiltzen da. Euskaraz “ -(e)n modura, bezala...” litzateke.

3.taldea

1.adibidea

AEBetan izan denari gertatutako zerbait badaki eta horri buruz galdezka ari zaio.

N.3.1 - Gaiñea kriston astakerik etziñutzen eiñ? Osea, *en plan* kriston kilometro pilloa eztakit ze ikusteko...

PORQUE Kausala adierazteko gaztelerazko modua. Euskaraz "zeren eta", "-(e)lako"... -en parekidea litzateke.

3.taldea

1.adibidea

Irakasleen ordezkapenei buruz hitz egiten ari da.

N.3.2 – (...) Azkeneako ya igual ordezkok etortzen dien garaien eske batzutan igual ezta izena re galdetu re eztiozu eitten *porque*, eske interesik e ez ya! (...) Asi que 18 urte!

4.taldea

1.adibidea

FAGOR enpresako errekolokazioen ondorioei buruz ari dira.

M.4.1 – Karo! Lehenau ateatzen bazan 10 txapatatik 1 plegauta, ba oaiñ 10etik 8, *porque* luzegok ateatzen die o motzagok...

PUES Azalpen baten aurretik erabiltzen da. Dezente erabiltzen da, baina gure grabazioetan ez dugu kasu askorik aurkitu. Bi adibide jarri ditugu eta biak pertsonaa berarenak dira.

32/36 urtekoak

4.taldea

* N.4.1 – (...) *Pues* ia urte asko zizon eskola hortan ta etzon ba gaizki geldittu nahi jenden aurren.

* N.4.1 – (...) Osea igual 3 urtekok baldin bazien 3 gela, ateatze zan gela bat euskeran apuntauta. 60 umetatik, *pues* 20 bat ateatze zien euskera ikastea!

- Interjekzioak

YA Esanahi asko izan ditzake, baina zerbait baieztatzeko edo une zehatz bat adierazteko erabiltzen da. Euskarazko "jadanik" hitzaren pareko esanahia ere hartzen du tarteka. Ahoskera, ordea, gazteleraz egiten den modukoa izaten da normalean. Euskaraz horren beharrik gabe hitz egin izan da eta hortaz makulu funtzioa betetzen du.

15/19 urtekoak

1.taldea

1.adibidea

Oporrak nola bizi dituzten ari dira kontatzen. Besteak esandakoa afirmatzen du.

N.1.2 – Leku igualea kuadrillakin o gurasokin ezta iguala!

N.1.1 – *Ya*, hoi re ezta iguala!

2.adibidea

Ordenagailuaren erabilerari buruz hitz egiten ari dira. Unea adierazteko darabil, baina makulua dela esan dezakegu. Hitz hori kenduz gero, esanahia ez baita aldatzen.

M.1.2 – Ba, oaiñ *ya* gutxigo ibiltze naiz.

M.1.3 – Mobbille daukeu ta...

3.adibidea

Gazteleraz irakurriz gero ez duela ezer ere ulertzen esan zuen batek. Bere erantzuna airean geratzen da, baina esan nahi duena garbi ulertzen da.

NI – Ta telebista ze hizkuntzatan ikusten dezu?

N.1.1 – Hori *ya*...

2.taldea

1.adibidea

Autoko gida baimenari buruz ari da oraingoan. Gida baimena ateratzen hasita daudela esan du eta udararako koadrilan izango dituztela gida baimendun batzuk. Oraingoan uneari egiten dio erreferentzia. Hala ere, makulu garbia da.

M.2.1 – *Ya* hasi die, *ya* uda hontan lau, bost eukiko dittu.

2.adibidea

Honako honetan, afirmatu egiten du lagunak esandakoa.

N.2.2 – Lehen jarri det “nun´tzarete?” ta iñok eztit kontestatu. Ta ostatua sartu gea ta bestek “bai beheran dare”.

N.2.1 – *Ya!* Gaiñea zea bezela, beheran dare zuei etxoitten! Jesus !

3.adibidea

Oraingoan ere aurrekoak esandakoa baieztatzeko erabiltzen du. Gazte lokaleko garbiketei buruz ari dira honako bi kasu hauetan.

N.2.1 – *Ya!*

M.2.2 – Bai, oaiñ gehio kolaboratzen diau! Nik lehen ez...

M.2.1 – Eztek asko garbitzen oaiñ e eh!

M.2.2 - Nik? *Ya* nik eztiat askotan...

32/36 urtekoak

3.taldea

1.adibidea

Mugikorrarekiko mendekotasunagatik ari dira hizketan. Bi lagunek esaldi ezberdinetan makulu gisa darabilte.

N.3.1 – Ba nik ezingo nun, ni ya nerbioso eongo nitzen.

N.3.2 – Ba nei ya bihar kadukatzen zait watxapa ia beize!

2.adibidea

Hizlarietako baten gelan ikasleek mugikorra erabiltzen dutela kontatzen ari da. Bere diskurtsoan makulu gisa sartzen du.

(...)

M.3.1 – Gero askok ibiltzen due musika aitzeko. Dibujo, laminea eitten da, "musika jarri leike?" Ta puf! Ba mp3 bat ekarri o mp4 bat. Eske *ya*, ta ze ein behar det, eosi ein behar det? Jo! *Ya* sentiarazte zaittu gaizki! Osea sentiarazte zea...

3.adibidea

Irratian lanetik bueltan entzuten duena kontatu du hilarietako batek eta horrela baieztatu dut nik. Beste batek esandakoa baieztatzeko erabiltzen dut.

NI – *Ya!* Eske Kanpezutik honea baukezu...

4.taldea

1.adibidea

Kateko lanari buruz dihardute eta aurrekoak esandakoa baieztatzeko erabiltzen du.

M.4.2 – (...) Eske azkenen lan danak zeukiek berea, baiño eske hori... madre mia!

N.4.2 – *Ya!* Baiño lan batzutan interaktuau deikezu!

2.adibidea

Toki ezezagunetan lehen hitza nola egin? Afirmatzeko darabil.

(...)

N.4.1 – Gaiñea nik beti pentsau izan det, zu euskeraz a[R]i´zea ta iñok eztizu euskeraz erantzuten. Erderaz itte´iozuna euskaldune izango´a, seguro! Hori beti gertatzen da! Batena gertuatze zea ta azkenen esate´iozu, perdona ta... "Bai?". Ta vale!

M.4.1 – *Ya!*

3.adibidea

FAGOREko errekolokazioei buruz dihardute. Baieztatu egiten du aurrekoak esandakoa, harridura tonu batekin.

M.4.1 – Zure lana oso erreza da, ba hilabete baten jartze ´izue tipo bat, eakuste ´iozu ta zu kalea!

N.4.2 – Zure lanakiñ geldittu behar do, ez?

N.4.1 – *Ya!*

JODER Interjekzio hau kexa edo harridura adierazteko erabiltzen da normalean. Zenbaitzuetan baita inbidia edo norbere asebetetze-poztasun egoera adierazteko ere.

15/19 urtekoak

1.taldea

1.adibidea

Ingelesa ikasteko asmoa duela kontatu du batek eta nire erantzunean interjekzio hau erabili dut. Tonuan nabari da inbidi puntu bat!

NI – *Jo!* Noiz, noiz zoaz? Ya?

N.1.2 – Eztait baiño ya, laixte!

NI – *Joder!* baiño zer tzoaz o per bezela o...

2.adibidea

Gaztetxoenei DBH bukatu ondoren dituzten asmoei buruz galdetu eta kexa tonuz erabiltzen du haietako batek.

N.1.1 – Ta ze asmo daukezue?

M.1.2 – Nik Txindokin geitzeko asmoa.

N.1.1 – Nik e baita! *Jode*, ba berez Goierria jungo nitzeke teknologikotik o hola baldin banijon, baiño letrak hartu behar dittut eta eztait.

2.taldea

1.adibidea

Miyuki pultserak nola egiten diren azaltzeko eskatu genion eta kexa tonuz hasi zen.

N.2.1 – *Jo!* Ba eztaikit, ba kanpoko pieza batzuk bezela die, osea eztaikit nungok dien, baiño kanpokok, ta hoiiek hari batekin juntauz ba pultserak eta hola eittea.

2.adibidea

Honako honetan ere, kexa adierazteko erabiltzen du. Kexu da koadrilan gida baimenik ez izan eta gurasoekin bueltatu beharra izaten dutelako parranda baten ostean.

M.2.1 – Ya hasi die, ya uda hontan lau, bost eukiko dittu.

M.2.2 – *Jo!* Eske gurasokin bueltatzea...

32/36 urtekoak

3.taldea

1.adibidea

Langabeziari buruz ari da hizketan eta kexa tonua erabiltzen du, zer bestela!

M.3.1 - Horreatik ba, baiño esate´izut *joe...* ohitzen baldin bazea ezer ez eittea, netzako iruitze zat, ostia gero lanen hastea izan behar dola... bai, puf!

2.adibidea

Gaur egungo umeak oso goiz hasten direla mugikorra erabiltzen diote. Honakoan, bi pertsona ezberdinek harridura adierazi nahi dute.

N.3.1 – (...) Baiño da pasada bat, umek eta ikuste´ittuzunen baita mobillekin ya. Osea, guk euki ezteuna...

M.3.1 – *Joder!*

N.3.1 - Ya hartzen duela, *jode*, Unaxek hartzen do mobille ta jarri´azu berriz!

3.adibidea

Hizkuntza eskolei buruz ari dira. Kexa adierazi nahi du.

N.3.2 – Hizkuntz eskolak tope dare eh!

M.3.1 - Bai, bai bai! *Jo*, baiño hautza re denborea behar dezu juteko eh!

4.taldea

1.adibidea

Lanean hasteko deitu zioteneko istorio bat ari da kontatzen. Kontatzen ari den momentu hartan sentitutako poztasuna adierazi nahi du.

M.4.1 – (...) Ta halako baten osabak deittu zian, Zumarratik, tallerretik! Eta *joe* ya, sartu orduko eztakit zenbat zan baiño, igual, enaiz goatzen baiño (...)

2.adibidea

Bere lan esperientzia bat kontatzen ari da. Kontatu nahi duenaz ohartarazi nahi ditu harridura, kexa tonu batez.

M.4.2 – (...) Indarren hasi ta 6 hilabetea kontratua renobatze zien, 4 hilabete pasa´ittuanen renobau ein´tziuan. *Joder!* Igual sartuko´ittuan ni sartu ta gero, ba igual 30 laun o gehiau!

3.adibidea

Belaunaldi arteko hizkera aldaketari buruz ari da. Beste batekiko, kasu honetan bere aitonarekiko inbidia edo miresmena adierazteko darabil.

(...)

N.4.1 – [XXX] Pillo bat disfrutatze´et. Eta ez hitz´eitteko modue bakarrik, eta esaerak. Aurrekon e baserri aurren neon beakiñ ta esan nion, *joe* aittona zenbat urte ia? (...)

HOMBRE Beste interjekzio hau, aldiz, adostasuna adierazteko erabili ohi da. Euskaraz "noski" , "bai", "zalantzarik gabe"... izango litzateke.

15/19 urtekoak

1.taldea

1.adibidea

Zahartxoagoekin unibertsitaterako planei buruz ari gara. Neuk egindako galderari baiezkoan erantzuteko darabil. Tonua altxatzen du hitza pixka bat luzatuz.

NI – Eta hi? batek kazetaritza, bestea artzai eskola.

M.1.3 – Ba ni re hor neillek. Kazetaritza lehen pentsauta neukian baiño seurona irakaskuntza eitteko. Mariakin jungo naiz igual oseake?

NI – Noa?

M.1.3 / N.1.2 – Gasteiza!

NI – Beittu, ondo bizitzea! Pisu batea eo hola?

Irene – *Hombre!*

Jon – Intentzioa behintzet!

2.taldea

1.adibidea

Galdera zuzen bat egin nuen eta zalantza izpirik gabe honela erantzun zuen. Galdetzea ere handia egin nuela esan nahi du bere tonuak.

NI – Ze ikusten dezue gehio telebistan erderaz dien gauzak o euskeraz dienak?

N.2.2 - *Hombre*, ba erderaz! Aukera gehio daulako.

3. taldea

1. adibidea

Parranda dela, ohiturak aldatu dituztela eta bat eta beste ari ginela adarra jotze aldera honako galdera hau bota nien. Zalantza izpirik gabeko afirmazioa egiteko erabiltzen du.

NI – Zuek e gaztek izango zeate ala?

N.3.2 – *Hombre!* Dudea eitten dezu ala?

KAR, KAR, KAR

(XXX)

2. adibidea

Hizlarietako batek AEBetara egindako bidaian kontatu duen bitxikeria bati buruz ari dira. Oraingoan, aurrez esandakoa baieztatzeko erabili du.

(...)

M.3.2 - *Hombre!* Kotxek haundik baldin badauzkie eta eak e haiñ haundik badie. Atea irikitzeke re, tokie beharko due.

3. adibidea

Ikasleen ingeles maila dela eta ari dira hizketan.

M.3.1 – Ba, ingeleseko irakaslek esaten ziana ez, jode suposatu behar deu nivel bat daukiela behin maila batea aillatu dienen! Ba, el verbo to be...

NI – Baño eztek hola!

M.3.1 – Ta eztek hola, jo baño beak etzeukik, e...

N.3.1 – Ya, beak nahi do puntu batetik hasi ta atzeagotik hasi beharra dauke.

M.3.1 – Eske hori da. Ordun ya azkenen eman beharra daukun guztie re... Ba, esate zon bueno ba eingo ´et, baño eske ordun beraiek e, beraien aldetik askoz empeñu gehio daukie jarri beharra.

N.3.2 – *Hombre!* Eske instituton e baita aukerak dauzkie! Han mailla diferentek dauzkie aukeratzeko.

M.3.1 – Ba, bai!

4. taldea

1. adibidea

Hizlarietako batek ile-apaindegi batean lan egin zuen eta horri buruz ari dira. Lagunak esandakoa hala dela ziurtatzen du.

N.4.2 – Usoa ta ni jun giñen behiñ lan eitte zon pelukeri batea!

N.4.1 – Bai, ni re bai!

N.4.2 – Bai, egie da!

M.4.1 – Ze, Astigarraga?

N.4.2 – Bai, neska batekiñ lan eitte zendun!

M.4.1 – Bai, bai!

N.4.1 – Eskerrak neskak ein ´tziun ta ez zuk!

KAR, KAR, KAR!

M.4.1 – *Hombre!* Ni eskue puskaute neon!

2. adibidea

Lana dela eta ez dela dihardute. Arrazoi duela jakinarazi nahi dio kode aldaketa eginez.

N.4.1 – Zapatu ta jaiek libre ezta?

M.4.2 – Bai, hori nere kondizioa izan ´tzan, nik zapatun enula lanik eingo sekula! Osea, ezta andrea ta umea bakaziota jun da halare nik zapatun eztet lanik eingo. Bestela re nahikoa det !

N.4.1 – *Hombre!* Hainbeste ordu eunero eunero, oso lotue da.

3. adibidea

Kateko lanari buruz aritu gara eta ondoren hizlari honek bere lanarekin alderatu du. Bere baieztapenari indarra eman nahi dio.

(...)

M.4.2 – Bai, *hombre!* azkenen nik eun osoa kasi bakarrik pasatze ´et baita, baiño beti norbaittekin ai naiz. O sea bakarrik, baiño beti norbaitt baneuke bezela.

VALE Oso onartua dagoen partikula da. Norbaitek esandakoarekin ados dagoela adierazteko erabiltzen da edota lehen adibide honetan bezala, nahikoa dela adierazteko. Euskaraz "aski" , "primeran", "ados" eta abarren parekoa da.

15/19 urtekoak

1. taldea

1. adibidea

Gazteleraz irakurri eta ez zuela ezer ere ulertzen esan zuen batek. Erantzunak segituan izan zituen.

M.1.4 – Bueno, tontokerik ez esan!

N.1.1 – Erdizka e!

M.1.1 – Bueno, *vale* eh!

2. taldea

1. adibidea

Bizipen bat kontatzen ari da. Espero ez zuen erantzun bat jasotzean berak izandako erreakzioa adierazteko darabil.

N.2.2 - Aurreko baten e... ju[n] nitzen Urbilea ta han bazkaldu genun ta e..., esan nion "donde estan los baños?" eta beak "bai, aurreaka ta eskubita". Ta ni, a *vale!* Eskerrik asko!

32/36 urtekoak

3. taldea

1. adibidea

Kobratu gabe lan egiteko eskaini ziotenean izan zuen erreakzioa konatzen ari da. Adostasuna adierazteko erabiltzen du.

N.3.1 - Esan nion, *vale!* Ta zenbait denbora? Ta eztakit, ba gabonak eta gero arte edo. Baiño kobrauko ´et? Ez, ez eske eztau diruik!

4. taldea

Toki/jende ezezagunetan/ezezagunekin nola jokatu? Estres linguistikoari buruzko gogoeta bat planteatzen du eta honakoa ere erreakzioa adierazteko erabiltzen du; hori bai beti ere egoera hipotetiko batean.

1. adibidea

N.4.1 – Gaiñea nik beti pentsau izan det, zu euskeraz a[R]i´zea ta iñok eztizu euskeraz erantzuten. Erderaz itte´iozuna euskaldune izango´a, seguro! Hori beti gertatzen da! Batena gertuatze zea ta azkenen esate´iozu, perdona ta... "Bai?". Ta *vale!*

YA ESTA Esaldi amaieretan erabiltzen da eta esaldiari bukaera emateko erabiltzen da. Euskarazko "kitto" litzateke.

2. taldea

1. adibidea

Adarra jotzen hasi zaio ikaste kontuak direla eta; esaldia amaitzeko tonu altuagoz garbi erantzun dio.

M.2.2 – Ba etxen ikasi, eskola jun, eztet bate ikasi ta geo 7 ateatzen dona.

N.2.1 - Ez, ez! Nik ikaste´tenen esaten det ikaste´etela. Ta bestela da penkau ein behar detelako. Ta *yasta!*

4. taldea

1. adibidea

Hizlarietako batek ingelesa ikasten jardun zela eta jada ahaztua duela kontatzen du. Etapa hori amaitua dagoela adierazteko erabiltzen dute.

N.4.1 – (...) Irlandatik etorri, atea nun ingleseko tituloa, oinarrizkoa eh! Hizkuntza Eskola Ofizialen, eta utzi nion ingelesa ikastei.

N.4.2 – *Ya esta!* Ein´tzendun zurea!

KAR, KAR, KAR

N.4.1 – Ta oaiñ ya eztakit ezer e. Osea, utzi nion eta *ya esta!*

2.adibidea

Ikasketei buruz ari da. Pertsona berberak hemen ere etapa bat bukatu dela argi eta garbi adierazi nahi du eta horretaz baliatzen da.

N.4.1 – (...) Eta Haur Hezkuntza bukau nonen *ya esta!* Urte guztiko lanak Haur Hezkuntzakin. Gero oposaketak atea nittun da ya Seguran... Ya, tope! Oseake *ya esta*, ya eztauket ezer gehio ikasi beharrik!

3.adibidea

Gazteagoak zirela hizlarietako batek eduki zituen modei buruz dihardugu. Esan nahi duenari indarra emateko birritan erabiltzen du. (...)

M.4.2 – Nik ikusi nonen perillea eta illea tintauta... esan nian, bueno *ya esta, ya esta!* horrena etzeok juteik! (...)

SIN MAS Zerbait bada, makulua da eta oso barneratua dagoela makulua dela esan genezake. Euskaraz “besterik gabe” litzateke, baina oso hedatua dago. Erantzun laburretan erabiltzen da eta esaten ari den/diren horri garrantzia kentzeko erabiltzen da.

15/19 urtekoak

1.taldea

1.adibidea

Miyuki pultserei buruzko azalpenak eman ondoren galderak egiten hasi gatzazkio eta makulu gisa erabili du.

NI – Bolitan izena da miyuki?

N.2.1 – Bai!

M.2.2 – Ya baiño helburu bat daukie hori eitteko o?

N.2.2 – Ez!

M.2.2 – *Sin mas*, eittea!

2.adibidea

Honako honetan, jotzen dituzten edota ikasten ari diren musika tresnez aritu gara; honelako erantzunak jasoaz tartean. Bere erantzunari garrantzia kendu nahi balio bezala esan du.

M.2.2 – Gauza gutxi desgraziz.

NI – Ze, ezer ez?

M.2.2 – Bai, panderoa, *sin mas!*

3.adibidea

Mugikorraren erabilerari buruz ari gara. Lehen baino gutxiago erabiltzen duela esateko makulu gisa erabili du bi aldiz.

(...)

N.2.1 - *Sin mas*, lenau gehio. Bo, ni behintzet! Oaiñ *sin mas!*

4.taldea

1.adibidea

Bilboko lehenagoko Sabino Arana irteerari buruz ari gara. Hizlaria askotan ibiltzen da han inguruan eta gaia atera da. Erabiltzeko beharrik ez izanda, makulu funtzioa du oraingoan ere.

(...)

NI – Hor e etxebizitzak ein beha izkie?

M.4.2 – Ez, ez. Hori *sin mas*, kendu eingo die, desmontau eingo die eta zona hori librea utziko die. Baiño lehen San Mames huan lekun, eske San Mames Berrian hori nik eztet oso ondo entenditzen. (...)

- Preposizioak

SEGÚN Gaztelerazko preposizio hau oso barneratua daukagu eta asko erabiltzen dugu gure eguneroko jardunean. Testuinguruaren arabera euskaraz modu batera edo bestera erabil dezakegu, baina ohikoena gazteleraz esatea izaten da. Trinkoa da eta erosoan aldi berean.

15/19 urtekoak

1. taldea

1. adibidea

Parranda egitera ze lekutara joaten diren ari da kontatzen.

N.1.2 – Gehienbat hemen, Goierri alden. Ta gero ia ba *según* nun daon ba... urrutixeo re ya hasi gea moitzen.

2. adibidea

Parrandetan euskarak duen presentziaz ari dira.

M.1.3 – Bueno, baiño juergatan notatze ´zu, tabernata sartzen zea ta erdera aitze ´zu ta txoznata sartu ta...

N.1.2 – *Según* baita eh!

3. adibidea

Euskera dela eta ez dela ari dira.

N.1.2 – Nahiz ta D eredun eman klasek, Donosti baten eztakie euskeraz askok eh!

M.1.4 – D eredun emanda! Tontokerik etzazu esan.

M.1.3 – Jakin, jakin bai, baiño beak esate ´o ohittura hori eztaukiela...

N.1.2 – Jakin, minimo bat! *Segun* zeñek bai.

2. taldea

1. adibidea

Egunerokotasunari buruz ari dira

N.2.2 – Aber ba eunero eskola jun goizetan, e... gero astelehen, astearte ta osteunetan eskolan geau bazkaltzen...

NI – Eun hoietan bakarrik?

N.2.2 – Bai, ze asteazken ta ostiraletan etxea etortzen gea bazkaltzea ta bestetan ba lauetan autobuse [d]aukeu honea etortzeko ta gero atxalden ba *según*. Astelehenetan “funtzional”, hemen Sergiokin.

(...)

N.2.1 – Ba goizetan eskola, gero 3etan etxea ia bazkaltzea ta atxaldetan siesta eta gero ba *según*, matematika o ingles o... O ea tokatzen dana.

32/36 urtekoak

3. taldea

1. adibidea

Hizlari hau ere irakaslea da eta ze mailatan edo ze urtetako jendearekin aritzen den azaltzen ari da.

M.3.1 - Erdi mailako batzuk, 16, 17 urte... *según*, batxilergotik datozenak. Ta gero ia goi mailakok!

2. adibidea

Komertzial lanari buruz dihardu.

(...)

N.3.2 – Hombre! Eske *según* ze distantzi ein behar ´tzun!

4. taldea

1. adibidea

FAGOR enpresan lan egiten du hizlarietako batek eta bertako errekolokazio kontua nola ematen ari den kontatzen ari da.

M.4.1 - (...) 23 soldadore gaude industrialden eta 23 hoietatik 5ei egin behar diote bazkide eta beste 18rak, zure lana *según* zer dan o hilabete baten sartze´izue norbait, eakuste´iozu ta kalea, edo 3 hilabetetan.

2.adibidea

Euskaraz egiten diren itzulpen baldresei buruz ari da.

M.4.1 - (...) batzutan gertau izan´tzaigu *segun* ze argibide eo euskeraz ulertzeko... (...)

GAZTELERAKO ESAMOLDEAK, SINTAXIA

Gaztelerako espresioak txertatzen dira euskarazko jardunean.

15/19 urtekoak

1. taldea

* Lehenengo adibide honetan ondo ulertzen ez bazaio ere, gazteleraz esaten du esamolde bat. Nik egindako galderari ironiaz erantzun dio eta gazteleraz esaniko espresio horrekin besteen arreta bereganatu nahi izan du.

NI – Ta Joseba hik ze eitten dek? Hik e *mujeres y hombres* ikusten dek?

M.1.1 – Eunero! *Una sola mujer con un hombre* [XXX]

* Euskaraz nola esaten den jakingo duen arren, gazteleraz esan du beste kasu honetan. Espresioak hala eskatuta edo, ahoskera oso markatuarekin esaten du.

M.1.4 – *Rifi – rafe* batzuk bai baiño...

* Besteen arreta bereganatu nahi du. Grazia egin nahi du eta kodez aldatzen du horretarako.

NI – Hik e bai Joseba? Zenekiñ hitz eitten dek ba, Txantxangorrikiño?

KAR, KAR, KAR

M.1.1 – Bai...

M.1.4 – Abarkakiñ aitze omen dek hola, abarkea hartu ta... *aqui mando yo!*

* Gaztelerazko espresio bat darabil bere diskurtsoan besteen atentzioa bereganatzeko eta esaten ari denari indarra emateko edo nolabait puzteko.

M.1.1 – Batzuk eitten due erdez *por molar mas!* Tontokerie!

* Telefono mugikorreko Candy Crash delako jokoaren azalpena ematen ari dela kode aldaketa egin du adibide bat jarritz.

N.1.2 - Candy crah? Jolas bat hiru... eske eztakit nola esplika.

M.1.2 - Oso modan dau mobilletan!

N.1.2 - 3 karamelu kolore igualekok juntau ein beha´ittuzu, *a lo tetris* bat bezela.

32/36 urtekoak

3. taldea

* Bere diskurtsoa bukatzeko eta esan nahi duenari indarra emateko kodez aldatzen du. Gainera, bera ere konturatu da horretaz, amaierako esanari erreparatuz behintzat hori pentsa genezake.

M.3.1 - Jo, nik ez nian ezautzen baiño Etxarrin baita karnabalak eitte´izkie astelehen, asteartea o astelehena ta asteartea o... ta kinto eune o eztait ze eitte´[d]uen! 18 urtekok, kabroi hoik eitte´[d]ue, astelehenen autobuse hartu atxalden, Tolosa jun, kixton juergea bota, gaupasaz Etxarria bueltau ta goizen etxez etxe diru eske ibili, bazkarie ta gero juergea. *Hasta que el cuerpo aguante!* Esaten dana.

* Lan munduarekin lotutako espresioa da. Horrelako gauzak gazteleraz esatea oso normala da.

N.3.1 - Ni *puerta a puerta* ibiltze nitzen! Hori bai dala...

* Dezente erabiltzen den gaztelerazko beste espresio bat. Euskaraz testuinguruaren arabera beste modu batera esaten saiatu beharko genuke.

M.3.1 - (...) *Dentro de lo malo*, eske bestela... Ez huan gure lana!

* Komertzialek orain dela 20 urte lan baldintza hobek zituztela aipatzen ari da eta oraingo egoerarekin konparatzean indarra eman nahi dio esaten ari denari.

M.3.1 - Oain dala 20 urte bai, *puta madre* ibiliko zien baiño oaiñ...

(...)

* Ez lokalik eta ezer ez zuela esateko kodez aldatu du. Espresio hori erabilia indarra eman nahi izan dio bere esanari.

N.3.1 – (...) *Ni local ni nada!* Osea, hartu zea ta zuk zure kontua, iñungo pistai pe ta kalea segi ta bezerok eitte!

* Dena handia zela esateko kodez aldatzen du. Kode aldaketa egitearekin bat gainera, tonua ere hala aldatzen du.

N.3.2 - *Dana da a lo grande!* Kriston kotxe haundik, baiño aparkatzeko lekuk nere *doscientos seisa* bi kabitzen diela aparkatzen due, leku baten eh!

* Bere lagunak esan duenarekin ados dagoela adierazteko erabiltzen du. Euskaraz "esango nuke" litzateke parekoa, hala ere gazteleraz askotan esaten dugu.

M.3.1 - Alduntziñ hoi Euskadi Irratin 3etan aitzen da ! Emate 'o gidioi pe eitten dola dana!

N.3.2 – *Ya te digo!*

* Gazteleraz esan du oraingo honetan ere, nahiz eta konturatu. Kontatu duen zerbaitek barrenak mugitu dizkiola esan nahi izan du.

M.3.1 – (...) Horrek, horrek... beittu, adibidez oaiñ erdez esango diat, *me tocó la fibra!*

* Askok erabiltzen da. Euskaraz "egia esan" litzateke kasu honetan.

N.3.2 – (...) Oporrak eukitzeatik ez! Nik ustet bokazionala dala, baiño karrera berdiñe einda e... aukera bat o bestea... nik *desde luego*, hombre bai!

4. taldea

* Istorio bat kontatzen ari da eta esan daiteke istorioko protagonistaren paperean balego bezala ari dela kontatzen.

M.4.2 – (...) Hua bere lana eitten ai zan! *Esto tiene que sacar ruido... pum y a tomar por culo!*(...)

* Harridurra, kexa tonu horrekin besteen arreta bereganatu nahi du.

M.4.2 – (...) Eske azkenen lan danak zeukiek berea, baiño eske hori...
madre mia!

* Kateko lanari buruz dihardu. Berarentzat oso aspergarria dela dio eta aspergarritasun gradua gehitzeko kodez aldatzen du tonuarekin batera.

M.4.2 – (...) Kateian hori azkenen izan beharra zeukik aspergarrie,
hasta las narices! (...)

* Ikasketak gainditu beharra zeuzkala kontatzen ari da.

M.4.2 – (...) Atea eñ behar diat *por mis narices!* (...)

* Euskaraz "berez" erabili beharko genuke. Jakin jakingo du, baina...

N.4.1 – (...) Edukazio falta bezela zeon ikusita. Eta nik, *de hecho*, Gaizka, bueno beste euskerako maisue, genden eskola berdinen bi, Gaizka ta ni euskera ematen, eta Gaizkak (...)

* Espresio hau ere dezente erabiltzen da. Kasu honetan "edozer gauza egiten" esan nahi du.

N.4.1 – (...) Beasaiñen e dendatan o erropa eosten o *lo que sea*, enteitzen donak seitzen do erderaz hitz eitten...

Gaztelerako espresioak euskaraz esaten dituzten zenbait adibide

1. taldea

* Euskaraz juerga hitza erabiltzea oso ohikoa da, batez ere Hegoaldean. Bada, juerga, parranda edo dena delakoa ez da botatzen. Euskaraz egin egiten da.

M.1.3 – Berez saardotei intentzioa neukian, baiño azkenen ez giñutzean jun baiño bueno, behintzet *juerga bota* genian ta...

* Nominalizatu beharrean, aditza infinitiboan erabili du, gazteleraz egiten den bezalaxe.

NI – Zuen arten ze muz moldatzen zeate? Giro ona al daukezue?

N.1.2 - *Hobe ez galdetu!* Diskusio batzuk bai baiño (...)

* Normala da espresio hau, baina gaztelerazko kalkoa da. Penarik handiena izanda ere, beti bakarra izango da. Orduan, "pena da" esatea nahikoa da.

NI – Aguantauko zendueke astebete bat wtxapi pe?

? – Galdetu Jaionei.

M.1.2 – Nik aguantau diat!

N.1.1 – Saiau naiz baiño...

N.1.2 – Jaione aste hontan saiau da ta ia lehenengo eunen...

N.1.1 – *Pena bat da e!*

* Gazteleraz erabiltzen den "si" horrek kausalaren zentzua du. Euskaraz "izan ere" erabil dezkegu edota "... eta".

NI - Egunkarik eztezue irakurriko ordun?

N.1.1 – Eske oaiñ egunkarie hor dau, twiterren dau. *Si* egunkarin atea behar dan dana twiterren ateatze zazu; ta gehio re bai.

* Itzulpen literala da, auskalo non entzun duen!

M.1.3 – Hoi txarra da ze batek euskeraz jakin eta bestek erdez, euskeaz dakin horrek tentazioa dauke erdez eitteko. *Horrek eitteo txarra!*

* Konpletiboa alferrik erabili du. Sintaxia.

N.1.1 – Hoi da! *Nere ustez iruitze zaiela erderaz eitteatik haundigok diela.*

* Gaztelerako kalko bat da.

N.1.1 – *Oaiñ nola mobille daukeun, praktikogoa da!*

* Gazteleraz erabiltzen den espresioa euskarara zuzenean itzuli du, aditz trinko bat bailitzan. Ez dut uste hain ohikoa denik.

N.1.2 – Eske nere laun bat e juntzan ta gustoa, oso gustoa

NI – Jon e hola jun ´tzan... ez umek zaintzea, eztait...

M.1.4 – Bai, lau atxurraldi jo hemen ta...

KAR, KAR, KAR...

NI – Baatzan lan eittea o holako zerbaitteta!

N.1.2 – Bai, *jartzeizuenen!* Osea nei, *total* eztet ezer ein behar hemen oseake...

* Bi aldiz ezezkoa erabili du. Bigarrenean "ere" erabili beharko luke.

Sintaxia.

N.1.1 – (...) Eske eskolan eon da gero etxea juten zea ta denbora libren gehienbat deskansau, ze zare eun guztie lanak eta eitten... ta ordun *eztizu* ematen gogoia *ezta* gauza haundik eitteko!

2. taldea

* Ikastea gustatzen ez zaiola esan nahi du. Itzulpena da honakoa ere.

M.2.1 – Ikastea etzat bate gustatzen, puf! *Ikastea azkena!*

* Esateagatik esan duela adierazi nahi izan du, baina gazteleraz esaten den bezala euskaraz esanda.

M.2.1 – Bai, *baño esan diat sin mas.*

* Gaztelera hain presente edukitzearen ondorioz, askotan euskaraz esaterakoan hura hartzen dugu oinarri eta nahasteak sortzen zaizkigu.

N.2.1 – Osea guk hitz sueltok asko euskeraz eztazkiu. Osea esan nahi det, igual esaldi bat eztakiu ondo euskeraz esaten. *Ni ondo eroitzen... natzaio? Yo le caigo bien.* Eroitzen ezta... Hoi eztakiu euskeraz esaten guk!

* Baldintza erabili orde, gaztelerako kalkoa erabili du. Sintaxia.

N.2.2 – *Ba ezta it igual Beasaiñen zerbait dau,* ba ordun Beasaiña. Osea zerbaitt dauneta!

* Kausala erabiltzen duten beste bi kasu ditugu hemen.

M.2.1 – Ez, ez; *si eztiat hori esaten, si esaten diat oaiñ...*

* NI – Ta zeñ da Cristina Pedroche hori?

M.2.1 – *La que se avecinakon* bat ustet dala !

N.2.2 – Bai uste ´t rubia...

M.2.2 – Presentadora bat, bueno presentadora...

N.2.1 – Nolakoa da?

M.2.1 – *Si ez dao La que se avecinan presentadoraik!*

* Erdi euskaraz erdi gazteleraz esaten du. Modu informala bat erabiliz oraingoan.

N.2.2 – Eske beti zerbaitt daukeu, beti buillaka gare!

N.2.1 – Ya beti! baiño, osea ez *diskusio de benetan.* Sin mas!

Tontokerigatik!

* Sintaxi traketsa.

NI – Eta hi? batek kazetaritza, bestea artzai eskola.

M.1.3 – Ba ni re hor neillek. Kazetaritza lehen pentsauta neukian baiño *seurona irakaskuntza eitteko.*

* Honakoa, okerra den arren, asko erabiltzen den beste espresio bat.

M.2.2 – Bestela, berez *ondo eamaten gea!*

3.taldea

- * Zenbat aldiz entzun behar izan ote dugu penak ez duela merezi?
"Merezi du" esatea aski da.
(...) 25 € balio zon entradea, baiño *pena mezi do!*

4.taldea

- * Sintaxia. Gazteleraren eragina.
M.4.1 – (...) Eta oaiñ *nola* Fagor ai dan ordaintzen ikasketa hoiak, ba erabaki zuen...
- * Krisiari buruz ari dira eta lehenengoan gaztelerako terminoa darabil. Bigarrenean, aldiz, gazteleraren eraginez ohikoa bihurtu den espresio bat da.
N.4.2 – (...) 2006 izan zan *justo punto...*
M.4.2 - - Hor sartu zien, gu sartu ginenetik hasita... 200 da piko persona. Osea *pasada bat eh!* Eta sartu giñen, 4 hillabetea renobau ta ia urtebete eitten gendun otsailen o...
- * Gaztelerarako kalkoa da.
N.4.1 – (...) Pues *ia urte asko zijon eskola hortan* ta etzon ba gaizki geldittu nahi jenden aurren.
- * Beste honetan, gazteleraz esaten den modu berean, baina euskarara itzulita erabili du oraingo honetan.
N.4.1 – (...) Euskaldunekin euskeraz eitte nun, baiño hori, *gaizki ikusita geatze zea ya!*

Aditza esaldiaren hasieran jartzen duten hainbat adibide

Esaldien ordena dela eta, adibide edo kasu batzuk baino ez ditugu jarri hemen, bat-bateko diskurtsoetan askotan erabiltzen direla iritzita.

2. taldea

* M.2.2 – Ez, baiño osea goizetan eskola sartu aurretik, *ba eoten gea hoi*ek, Izalgok gutxitan. Segurakok, Zerain, Zeama, Gabirikok gu, Ataungok eta danak batea.

* N.2.1 – Ez, ez! Nik ikaste´tenen esaten det ikaste´etela. *Ta bestela da penkau ein behar detelako*. Ta yasta!

* N.2.2 – *Jendek idazte´o ba eitten ai dana o...* jende batzuk asko idazte´o, hori bai. Osea, *esaten due ba ze ai dien eitten denbora oson* da hola. Baiño beste batzuk...

M.2.1 – *Ia batzui falta zaie esatea kaka eittea dijoztela*

* NI – Joder! Baiño hola hasten bazea. *Hori da traduzioa eittea*.

32/36 urtekoak

3. taldea

* M.3.1 – *Ostra, aitzen dezu batxillergokona ta han...*

* N.3.1 – Ander, gure lehengusue aittu zan han irakasle eta esate zon reformatorio bat ematen zola. *Zeuzkela inguruko e... zea guztik, fitxaje danak, ijittok... de todo!*

* N.3.2 – (...) *Nik hartu non plaza Urretxun ta 15 egun ein nittun eta hots ein ziaten Lesakatio (...)*

* N.3.2 – (...) *Gutzako da urtero lankide diferentek, jende berrie, ume diferentek, eskola berrie...*

* N.3.1 – (...) Nere laun bat hoi, osea *aitzen da sustituziok eitten* ta hoi da igual, bi aste ta beste eskola bat.

* N.3.1 – (...) *Hasi nitzen* Lanbideko cursillo bat itten, kontabilidatea eta administrazioa, osea nerekin zerikusie daukena guztiz.

* N.3.1 – (...) beak enteittu zon *iriki behar zuela sukursala* Beasaiñen eta dendan bat edo.

* N.3.2 – Oaiñ da momentue, *eta da beidatzezu korreoa*, beidatzezu facebooke...

4. taldea

* N.4.1 - Ya! Eske *oaiñ dau okerrago*, bai.

* M.2.1 – *Da kanal bat...*

M.2.2 – Amerikanoa!

M.2.1 – Amerikanoa ta *dare subastan zeak*, subastan programak, gero bucadores de fantasmas ta hola.

IRAIN ETA BIRAOAK

15/19 urtekoak

1. taldea

* Gaztelerako espresio hau, birao hau, oso ohikoa da euskaldunen artean ere eta "ezta pentsatu ere" esan nahi du. Literalki, berriz, "barrabilak". Orio aldean esaterako, badakit horrela erabiltzen dutela eta ezin naturalago gainera.

(...)

N.1.1 - Ondo moldatzen gea, nahiko ondo!

M.1.1 – Beti bezela, danetan bezela! Etxen e ze uste ´ zu ba, ixi ixilik eoten diela ala? *Los cojones!* Han e buiea ateako due.

* Adibide honetan egunkaria/irratia ze hizkuntzatan kontsumitzen dituzten ari dira ezbaian. Gaztelerazko espresioak erabiltzen ditu, kexu delako bere lagunak esan duenarekin. Berak ere gauza bera pentsatzen baitu. Gainera, kode aldaketa egiterakoan tonua altxatzen du, nolabaiteko ordena jarri nahian balebil bezala.

(...)

N.1.1 – Benetan ai naiz eh! Erdizka. Nik nahiago det euskeraz...

Denak batera: nik e bai, nik e bai...

M.1.1 – *No te jode!* Neuk e bai, *cauen dios!*

* Euskaraz erdipurdi egiten duen bati buruz ari da oraingoan eta atentzioa deitzeko edo esandakoari indarra emateko darabil.

M.1.4 – Lehen e bota dik esaldi bat, baiño *la redios!* Hoi ze ote zan!

32/36 urtekoak

3. taldea

* Estatu Batuetako ustezko ohitura bati buruz ari da. Honakoan, ezer ez zegoela adierazteko aldatzen du kodez bi hitz horiek markatuz.

M.3.1 - Estatu Batutan pentsatzen dek beti barbakoa eingo duela, baiño kaka ostia bat! 10etan o aiau giñen da *ni ostias!* Iñor etzeon.

* Adibide honetako biraoa dezente erabiltzen da. Zerbait pisutsua, astuna edota aspergarria denean erabiltzen da. Honakoan bi aldiz erabiltzen du tonua altxatuz, baina bigarrenetan askoz gehiago markatzen du.

N.3.2 – Bai, lehenau danak esate zuen, joder Euskadi Irratia ta *que coñazo*, ta oaiñ Euskadi Gaztea ta esatezu, *QUE COÑAZO !*

* M.3.1 – *Ahí va la hostia!* Baiño, eske nik esan nien, edukazio falta bat da!

4. taldea

* Inoiz edo sekula bezalako hitzak erabil baditzake ere, indarra eman nahi dio bere esanari eta kodez aldatzen du tonua altxatzearekin bat.

M.4.2 – (...) Ba prepau deikezu ze ezta lavadora bat *en la puta vida* funtzionatzen dola ertengo! (...)

* Asko erabiltzen da beste

M.4.2 - Baiño eske horrekin rollo bat daukie azkenen, hortan seitzen duen bittarten enpresea *por culo hartzea dijo!*

* Lehenengo birao honekin harridura adierazi nahi du eta bigarrenarekin kale gorrian geratu zela adierazten du modu bortitz batean.

M.4.2 – (...) *Ai va la ostia!* Hau zerta zijok? (...) Pentsau, 2. eunen *a la puta calle !*

* Kexa adierazteko erabiltzen da birao hau.

M.4.2 – (...) Indarrea asko jute nittuan eta ni jendekin tratuako beti zea euki diat eta, *cauen dios!* bat behar diat laneako, eske ez gaittuk aillatzen eta bat hartu beharra zeukiau! Hi, ni etorriko neok! Hola, broman! Etorriko hitzeke? Ta... bai, *cauen dios!* Zeatik ez neo pa etorriko!

LEXIKOA

Honako atal honetara gazteleratik hartutako hainbat hitz ekarri ditugu. Partikula, espresio eta abarrez gain asko baitira gazteleratik eratorritako hitzak euskaraz dihardugunean erabiltzen ditugunak. Ingelesetik datozenak azpimarratu egin ditugu.

1. taldea

* NI - Osea danok ia Txindokiñ zaete, iñor eztau Goierriñ?

M.1.3 - Ez, ez ez, gue *edaden* ez

* M.1.1 - UGLE? *Residentzie* ematen do izen horrekin.

* N.1.1 - Gu oaindio laugarren DBHn gare, osea *obligatorioa* da.

* M.1.1 - Gomizteia, gero handik fraisoroa ta han geo beste hola zean bat baldin badau ikusteko eo hola hautza re bai. Baserrikiñ eo *primer sektorekin* zerikusie euko baue...

* N.1.2 - Oaindik eske ez tet *dezidittu* ezerrez.

* NI - Asten zehar etzea etortzen?

M.1.1 - Ez, hola zean bat, *reunion* bat o hola ezpadau ba. Geo hok, kalamidade hokin eon ostiela ta zapatutan ta...

* N.1.2 - Eske oaiñ sardotei *temporada* da ta...

* NI - Zuen arten zemuz moldatzen zeate? Giro ona al daukezue?

N.1.2 - Hobe ez galdetu! *Diskusio* batzuk bai baiño...

* NI - Zertako ibiltzen dezue mobile?

N.1.1 - *Watxapeatzeko!*

NI - Zeiñekin hitz eitten dezue?

M.1.3 - Ba *grupon* da...

* NI - Iñauteritako ze plan daukezue ba?

M.1.3 - *Estazioa* aiau ta txoznata!

* M.1.4 - Nik Goenkale ikusten diat, zean e...

N.1.1 - Nahieran!

M.1.4 - Beandu izaten dek ne *horarioako*. Astelehenetan ta asteartetan oso beandu.

* NI – Zertako ibiltzen dezue gehienbat Interneta?

M.1.4 – Ba hortakoxe. Ta *periodikoa leitzeko!*

* NI – Etzazue gehiegi iruitzen? Watxapa, twiterra, facebooke, tuentie...

* M.1.1 – *Descargar* eman eta hurrengo goizen jeikitakon hartu danak...

* N.1.2 - Candy crah? Jolas bat hiru... eske eztakit nola esplikau.

M.1.3 – Oso modan dau *mobilletan!*

N.1.2 – 3 karamelu kolore igualekok juntau ein beha ´ittuzu, a lo tetris bat bezela? Ta kixton *viziantea* da, mundu guztie *viziauta* dau.

* M.1.4 – Tesebisoko *mujeres y hombresekoa* hoi bai eztala...

* Irene – Jakin, *minimo* bat! Segun zeñek bai.

2.taldea

* M.2.1 – Eske beti izan die Ormaiztikok, zea bat e, talde bat bezela. Izalgok e hor da bestek ba ia... beste danak *mas o menos* batea.

* M.2.1 – Ni Unai naiz eta nere hobbyk die baterie jotzea, musika aitzea eta launekiñ eotea.

M.2.1 – Ni Eneko naiz, Gabirikoa eta hobby bezela ba eztakit futbola o, *deportea* eittea, launek ta *juerga* pixkat eittea ta hori. Eztauket ezer *espezialik* hola...

* NI – Ta nola deitzen zaio horri?

N.2.1 - Miyuki

NI- Zer da izen japoniarra?

N.2.1 – Bai, *japonesa* ustet dala bai!

* M.2.2 - - (...) Lan mundue-ta hobetzen ai dekela zeatio normalen "pezepikok" -ta hartzen baizkie, *supuestamente* dittuk txarrenak bezela, osea DBHik e etzeukiekenak ta hoik hartzen baizkie...

* NI – Mozorrotzeko asmoik bai?

M.2.2 – Bai!

KAR, KAR, KAR

N.2.2 – *Disfrazau* be ez gea jungo!

NI – Ta zertaz *disfrazau* behar ´tzue?

KAR, KAR, KAR

N.2.2 – Ba eun baten ardiz eta beste baten erromesez!

KAR, KAR, KAR

N.2.1 – Santiago bidea eitten duenak, *Camino de Santiago* eitten duenak!

* M.2.2 – Ya, baiño azkenen watxapa beharrezkoa bezela hartu diau.

N.2.1 – Ya!

M.2.2 – Lehen watxapa etzeoanen eitte genian iguala.

M.2.1 – Bueno...

N.2.1 – Ohittu ein gea!

M.2.1 – Watxapa etzeoanen gu ez giñutzean batea ibiltzen!

M.2.2 – Erreztasune daukela!

M.2.1 – Urte bat ibili gaittuk! Ta hala re telefonokin *kontaktauz*.

M.2.2 – Telefonoa ta *mensajek*!

* M.2.1 – Nik gehiena igual ikasteko. Osea, ba klaseko *listoi* o, ya laburpena eitten donen “hi biali ´zak bat, argazki bat hola”.

* N.2.1 - Nik ikaste ´etenen esaten det ikaste ´etela. Ta bestela da *penkau* ein behar detelako. Ta yasta!

* N.2.2 - Lehen jarri det “nun ´tzarete?” ta iñok eztit *kontestatu*.

* NI – Ta hik instrumentun bat jotze al dek?

M.2.2 – Gauza gutxi *desgraziz*.

* M.2.1 – Bueno, eske lokalen garenen igual batzuk Play stationen ibili nahi due ta bestek hitz eiñ ein nahi due ta bestek hobbyten ibili nahi due ta azkenen ze pasatzea, ba bat hasten dala *diskutitzen* eta bestek segi eitten dio. Ni barne!

* N.2.2 – Hoi da, *en general* ! Eun bateko zerbaitt.

* M.2.1 – Bai, aktore txarrak dittuk baiño azkenen behiñ haste haiz ikusten eta...

N.2.1 - ... *engantxau* eitten zea !

M.2.2 – Hi ba saiau neok ikusten ta eztiat lortu *engantxatzeik* !

M.2.1 – Bai, oso txarrak dittuk, hori bai !

M.2.2 – Eztiat lortu! Nik ikuste ´ izkiat zereken gauza *mierdanak*, ba *mujeres y hombres* eta holako kaka pillak!

* M.2.1 - Nei gehiena gustatze zaizkitenak *subastanak* ta hola...

M.2.2 – Ah , *caza subastas?*

M.2.1 – *Subastanak* ta...

NI – Baiño ze katetan eoten dittuk hoiak?

M.2.2, M.2.1 – *Discovery Max!*

M.2.1 – Da kanal bat...

M.2.2 – *Amerikanoa!*

M.2.1 – *Amerikanoa* ta dare *subastan* zeak, *subastan* programak, gero *bucadores de fantasmas* ta hola. Osea, *el ultimo superviviente* ta hola.

* NI – Ta zein da Cristina Pedroche hori?

M.2.1 – *La que se avecinakon* bat ustet dala !

N.2.2 – Bai uste ´ t *rubia*...

M.2.2 – *Presentadora* bat, bueno *presentadora*...

N.2.1 – Nolako da?

M.2.1 – Si ez dao *La que se avecinan presentadoraik!*

M.2.2 – Politte!

M.2.1 – Morena bat ustet dala. Eske gaur klasen aittu die hitz ´ eitten hortaz. Batei aiau zaio *mensaje* hori ta...

N.2.2 - Hori ustet dala, *rubia* hori...

* NI – Joder! Baiño hola hasten bazea. *Hori da traduzioa eittea.*

* M.2.2 – Ni erderaz hitz ´ eitten *patan* bat neok!

3. taldea

* M.3.1 – Ba hori, nei kriston *perezea* ia. Nahiago diat azkeneko afarie ein genduana bezelako bat eiñ ta goizeko 3terditan o laueta etxea jun ginkas pare bat hartuta...

M.3.2 – Eske problema hoi dek. Irtetzeko kriston *pereza* ematen do, baiño behin irtenda pixkat animau ezkeo...

M.3.1 – Lanekok esan ´ tzien, baiño ze *perezea!*

* N.3.1 – Kriston ondo pasa gendun, gaiñea ebikatik o izango zan, etzeon hainbeste jende re. Ez? Nik beste urtetan igual *agobioa* o...

* M.3.1 – Jo, nik enian ezautzen baiño Etxarrin baita *karnabalak* eitte´izkie.

* M.3.1 – Ostra, aitzen dezu batxillergokona ta han... Nik Erdi Maillakok ikuste´ittut ta eskerrak danak mutillek dien, neska bat dau baiño hormonak ezta hainbeste *alterauta!*

* N.3.1 – Ander, gure lehengusue aittu zan han irakasle eta esate´zon *reformatario* bat emate zola. Zeuzkela inguruko e... zea guztik, *fitxaje* danak, ijittok... *de todo!*

* N.3.2 – Baiño ni lehen hezkuntzan. Bueno, lehen da haur hezkuntzan!

N.3.1 – Ah, hoi esatea nijon. Uste non... Baiño nik uste non *guarderin*, haurtzaindegín...

* M.3.1 – (...) Ba, ingleseko irakaslek esate ziana ez, jode suposatu behar deu nivel bat daukiela behiñ mailla batea aillatu dienen! Ba, *el verbo to be...*

* N.3.1 ... Anek galdetu dio aver aste santutan "*al pueblo*" jungo gean eakiñ da esaten´tzon galdetu ein beharko dola ze ezta killa nola ibiliko´an.

* M.3.1 – Jonentzako laixte "*al pueblo*" jutea honea etortzea izango´a.

KAR, KAR, KAR

* N.3.1 - Nere laun bat hoi, osea aitzen da sustituziok eitten ta hoi da igual, bi aste ta beste eskola bat. Hasi zaitz berriz, *pereza* ematen bado lanea jun da jakinda zenekiñ, ze bilau behar´tzun... jakin be!

* NI – Nun ikasi huan hik Beñat?

M.3.2 – Altsasun! Bueno, Ormaiztitik Goierria ju[n] nitzen bi urte, *FP uno* Goierriin ei[n] nun ta 2.a beste 3 urte, Altsasun.

* N.3.1 – (...) *Concurso de acreedores* eingo deu, baiño segi eingo deu ta pixkat dendako gauzak kendu.

* N.3.1 – (...) Baiño beti lan ein det, *mueble* saltzen eh!(...)

M.3.1 – Kontue da nahiz ta *paron* eon geldi ez eotea!

* N.3.1 – Horreatik, osea nik lehen e, eo[n] nitzenen, 4 hillabete eo[n] nitzen *paron*, Zarautzen bukau nonen ta Xabikiñ hasi nitzen arte; eta *fotografiako curso* bat ei[n] non!

* M.3.2 – Azkenen *desesperautako* jendek e... hainbeste denbora ezer ez eta...

N.3.1 – Eztezue aittu telediarion eun hotan, Bartzelonan, lan bat esan´tzola, benga lanpostu hau izango da 50 euroko billete hau hartzen donantzat. Bota zuela ta neska batek oaiñ, zeau e... *denuntziau* ein dittu (...)

* N.3.1 – Nei behintzet, osea *biolentoa* eitten zitzaian hori, osea ni re enitzen gustoa juten. (...)

Lehen *kondizio* onetan ez bazitzaian gustatzen, ba oaiñ holako *kondiziotan*...

* M.3.2 – Esaten dittun tontokeri gehienak behintzet hola esaten dittu, bestela ez gea ikusten *casi!* (...)

M.3.1 – (...) Juntatzen giñutzean, hoixe ba afarin baten, bazkarin baten... Aspaldin eztiacula eiñ *portzierto!*

* M.3.2 – Bai, *utilidade* haundie dauke! Askotan txorradatako ebaltzen da baiño...

M.3.1 – Dana bere *nivelen*, maillan baiño...

* N.3.2 – Bueno, *Candy Crashekin* euki non hor *temporadea*, baiño ia apartauta dauket!

* N.3.1 (...) Nere anaiek ikuste´ittu pelikulak mobillen, hola jarri *mesillan* eta (...)

* M.3.2 – Akordatze naiz Goierriñ hasi giñenen, ordenadore lehenengoa *writing assistance*. Puf! Pantalla beltz bat letrakiñ eta... (danak batea)

M.3.1 – Eta Ormaiztin *tortugea!*

M.3.2 – Ah! Baita!

M.3.2 - *Tortuga* berdea! Taka, diskete haundik eta...

* M.3.2 – (...) Eztet asko beitzen *kasi* baiño...

N.3.1 – *Kotilleatzeko ez?*

M.3.2 – Bai!

* M.3.1 – Baiño hoiak zertako die? Eske ezteq bein e ulertu! Nik telebison da, e... ba igual *zappingetako* zea baten, e... joe, bazeok *la sextan* uste diat. Zapatu atxaldetan eo hola botatzen die 3terditatik 4eta eo hola, *zappingeko* zea bat. *Top tremting tele* o holako, bai, eta hor ba (...)

* M.3.1 – (...) Bai, kotxea alkilau non, ni eo[n] nitzen, *El Mira, Estado de Nueva York*, ta ein nittun 400 km zea juteko, *Cataratas de Niagara* ikustea juteko. (...) Gaiña *cuatro de julio* tokau zitzaian tarten, baiño *mierda* bat zan!

* M.3.1 – (...) *Zona amish* ustet zala jun giñen toki hoi (...) Hola zea *Carruajekiñ* eta (...)

* N.3.2 – Dana da a lo grande! Kriston kotxe haundik, baiño aparkatzeko lekuk nere *doscientos seisa* bi kabitzen diela aparkatzen due, leku baten eh! Pasada bat da!

* M.3.1 – Hi! Ni eneok haundie baiño hi... *Todoterrenon* argazkie eakutsi nian ezta? *Kasi guarda barroza* aillatze zitean... Hi! Metro terdi pasa neok, ba...

4. taldea

* NI – Nik aittuta dauket lehenengo aldiz hemen ein´tzendula lana! *Sozidaden* ezta?

Danak batea: *Pelukero, pelukero!*

KAR, KAR, KAR

* N.4.1 – Kuadrillako erdik *calvo* utzi dittu eta beak ba ezta kit ze ein don baiño illea dauke.

* M.4.1 – (...) Eta halako baten deitu zian eta egunero 55 km jun, 55 etorri. 110 egunero, larunbatak barne! Eta... ba *nazional unok* dakarren...

* M.4.1 – (...) Beti *accidentek*, beti bildurrakin, beti poliki (...) Ta halako baten osabak deittu zian, Zumarratik, *tallerretik!*

M.4.2 – Hoi *caldererie* huan ez?

* M.4.1 – Arazoa da oaiñ *electrodomesticotako* jendea errekolokau behar dituzte eta gutxi gorabehera 80 lagun daude hiru *cursillo* eiten: mekanizatu, soldadura eta mantenimiento.

* M.4.1 – Karo, sekula ez baldin badute soldau. Osea, *de repente* ematen diozu *lavadora* baten 2 milimetroko txapa bat edo eta zulau eiten due (...) Osea dakie eramaten kamioia *primera, segunda* ta aurrea juteko, baiño gero ez diozu *esjittu* behar aparkatzea edo atzeaka...

* M.4.1 – Fagorren daude bi, esaten dute franja uno eta franja dos (...)

* N.4.1 – Eta jun beharra baldin badaukezu kumunea o zeoze jatea?

M.4.1 – Eskue altxatze zu eta dau bat e...

NI – *Repuesto!*

M.4.2 – Ostia ba *repuestoko* horrek seguro pegatina jartzen eta botoiak... (ez da ondo ulertzen)

N.4.2 – Baiño *repuestokoa* zer dau zai, zu noiz altxauko?

M.4.1 – Ah, hori eztakitt! (...) Ni enau plantan esate´ana (...) Ordun nik planta oso gutxi ikusi´et, *comedorea* jute[n] naiz (...)

* M.4.2 - Osea, pazientzie ez, hire burue *nulo* izatea *limitau* beharra daukek (...)

N.4.2 – Ya! Baiño lan batzutan *interactuau* deikezu!

M.4.2 – Bai! Hombre azkenen nik eun osoa *casi* bakarrik pasatset

* M.4.2 – Institutoa bukau nian eta instituton bazeoan *desorientadore* bat (...) *Enperrau* huan ingeniero ein behar niala!

* M.4.2 - Osea pasada bat eh! Eta sartu giñen, 4 hillabetea *renovau* ta ia urtebete eitten gendun otsaillen o... Ez, apirillen! Ba otsaillen, ebentual danak a la puta calle! Hola, geatze zea *de repente*...

* N.4.1 – Eske gaiñea *conduzitzek* estresa sortzen do !

* N.4.2 – (...) Bai, oso ondo pasau nun! Egie da! *Recuerdo* onak dauzket!

* N.4.1 – (...) Frantzia jun giñen baten, peri bat zeon eta han ai giñen periñ aurea ta atzea gauzak ikusten eta esan non bueno, frantsesez eztakit, ba euskeraz eingo diot *total...* komunikauko gea, enteittuko gea (...)

* M.4.2 – Eske hor asuntoa da, zuk ikasi zendun hori ezetz esate´zu baiño zuri oaiñ tokatze zazu *por obligación*, Irlanda jun beharra daukezu lanea 15 eun eta 2.asteako lehen daukezun hori dana *rekuperauko* zenduke.

* N.4.1 – Nik uste´t *questioa* dala denbora asko pasa dala! Igual seittun e... ez? Igual berrie izango balitz, gehio *konbalidauko* zizuela.

- **BESTE PERTSONA BATEK/BATZUEK ESANDAKOA EDO EUREK UNE JAKIN BATEAN ESANDAKOA**

15/19 urtekoak

2.taldea

* Pasadizo bat kontaktzen ari da. Berak gazteleraz galdetu zion Urbil merkatal zentroko norbaiti eta hark euskaraz erantzun zion. Istorioa gertatu zen bezala kontaktzen du eta horretarako kodez aldatzen du.
N.2.2 - Aurreko baten e... ju[n] nitzen Urbillea ta han bazkaldu genun ta e..., esan nion: *"donde estan los baños?"* eta beak bai, "aurreaka ta eskubita". Ta ni, a vale! Eskerrik asko!

32/36 urtekoak

3.taldea

* Kasu honetan komertzialek esaten zutena ekartzen du elkar hizketara eta kodez aldatzen du.

N.3.1 – (...) Lehen astero ibiltze zien komertzialak, gero ba...

hillabeten behiñ ibiltze zien, esate zuen *"que ni pa cubrir gastos!"*

* Beste honetan ere, pertsona berak, kodez aldatzen du hirugarren pertsona batek esandakoa aipatzeko. Lanari buruz dihardu eta lana gaztelerarekin lotzen duelako ere izan daiteke.

N.3.1 – (...) Gaiñea esate zian *"es un trabajo muy duro, pero se gana... se gana dinero..."*

4.taldea

* Beste kasu honetan, neronek, kodez aldatzen dut. Beste batzuek esandakoa aipatzeko. Oraingoan ere lanarekin lotutakoa da darabilgun gaia.

NI – (...) Hainbestekoa da Fagorren eh! Eske guk ikusi gendun Volkswagenen, Iruñian, Goieritik batxilergoa ein gendunen jun giñen eta esate ziuena "*estudiar chavales, estudiar!*"

* Lanean gertatutako istorio bat kontatzen ari dela, hango batek esana kontatzeko kodez aldatzen du.

M.4.2 – (...) "Kank" eta "kank" eta, halako baten buillaka, "*eh que no me llegan piezas!*"(...)

* Oraingoan ere, lanarekin lotutako elkar hizketa da eta beste baten esana gazteleraz aipatzen du.

M.4.2 – (...) Osea dek inprobisazio kontinuo bat. Ze hots eitten dik batek eta "*joder, que aqui he tenido una fuga de no se que*"

* Azken honetan ere hiirugarren batek esandakoa gazteleraz esaten du.

N.4.2 – (...) San Adrian zan, Iruñatik behera, herri txiki bat. Ta ni Goizanekin euskeraz eta umekin euskeraz; eta etorri zitzaian jangelako emakume bat, etzala ezta irakaslea re, jangelako emakumea bronka botatzea "*que no les hablase en euskera*".

11. Emaitzak, ondorioak eta aurrerabideak

Gabiriako bi belaunaldi ezberdinekin elkar hizketak egin ostean zera esan dezakegu, bere garaian Getariako kode-alternantzia aztertu ondoren Amets Etxabek zioen moduan, “kode aldaketa hizkuntzaren ezagutzatik haratago dagoen fenomeno dela, helburu ezberdinak lortzeko erabiltzen den fenomeno” (Etxabe, 2005:26). Guk ikerketa egin dugun eremua arnagunea da, hau da, euskararen ezagutza eta erabilera maila altua dago bertan. Bada, baieza dezakegu (aurrez uste genuen moduan) honelako tokietan ere kode aldaketa badela, bai gaztetxo eta baita ez hain gaztetxo direnen artean ere. Ordizia eta Zaldibiako gazteen kode aldaketa aztertu zutenean ateratako ondorioetako bat ekarriko dut hona, gure ikerketarako ere baliogarria baita. Honela zioen “Euskal Herrian agertu ez eta Goierrin gertatu den kode-alternantzia motarik ez dugu atzeman. Badirudi, Goierrin berritzaileak baino gainerakoen atzetik doazen hiztun gazteak bizi direla” (Etxabe, 2010:41). Gure kasuan ere horrela da, ez baitugu ezer berririk edo apartekorik jaso. Beste lanetan atera diren ondorio antzekoak atera ditugu geuk ere.

Zein da, ordea, kode-alternantziaren funtzioa eta zergatik erabiltzen da Gabiria bezalako arnagune batean? Guk ikertu eta azterturikoari erreparatuz gero esan dezakegu hainbat arrazoi daudela kode aldaketa hori emateko eta beti beteko duela funtzioaren bat, hau da, inoiz ez da aliritzia gertatzen kode aldaketa hori, beti izango da agerikoa ez bada, atzeko arrazoiren bat hori gertatzeko. Arrazoiak hainbat izan daitezkeela esan dugu, beti ere horrekin lortu nahi denarekin edo eman nahi zaion funtzioarekin loturik. Lionel Jolyk dioenez *Soziolinguistikaren oinarrizko kontzeptuak* txostenean, “alternantzia motibatua ere deitu izan zaio, komunikazio estrategia bati erantzuten diolako... Beste kasu batzuetan, aldiz, ez da motibatua. Azken kasu honetan, “interhizkuntza” fenomeno aurkitzen dugu.

Adibidez, bigarren hizkuntza baten ikasle batek, ikasten ari den hizkuntza eta bere jatorrizko hizkuntza nahasten dituztenean, "interhizkuntz", "erdibitarteko" hizkuntza daukagu. Inmigrazio kasuetan inmigratuek bi hizkuntzak nahasten dituztenean guztiz integratu arte, interhizkuntza dugu baita" (Joly, 2014:28).

Badira euskarazko jardunean etengabe erabiltzen ditugun hainbat partikula. Hauek erabiltzearen arrazoa gure bizilagun den **gazteleraren eragin nabarmena** da. Konturatu ere egin gabe darabilzkigu gure eguneroko jardunean eta hauen funtzioa **adierazkortasuna lortzea** izango litzateke. Euskaldun peto petoek ere erabiltzen dituzten partikulak dira (Hegoaldeari erreferentzia eginez betiere, noski). **Ahozko testua antolatzeko partikulak etengabe darabilzkigu** geure ahozko jardunean. Gaztelerazko hainbat eta hainbat espresio ere agertu dira gure grabazioetan. Batzuk gaztelera hutsean, besteak euskarara moldatuta eta beste batzuk aditza tokiz aldatuta. Esan behar da honen arrazoa ere lehengoaren berdina dela, hau da, gaztelerak gure egunerokoan duen presentziaren ondorio dira. **Adierazi nahi den horri konnotazio berezia eman nahi diogunean** erabiltzen dira gaztelerazko espresioak. Euskaraz ere badakizkigu hainbat esamolde, baina **gaztelerazko espresioak oso barneratuak ditugunez**, askotan euskarara pasatzen ditugu gaztelera oinarri hartuta. **Irainak eta biraoak** esateko aldatzen dugu beste askotan, ia beti. **Askoz erosoagoa egiten baitzaigu kodez aldatzea euskaraz esatea baino**; alde horretatik hutsune nabarmena dauka euskarak (edo euskaldunok?). Ez horrenbeste, gure kasuan behintzat, umoreari dagokionez, baina horretan ere zerbait nabari da. Gero eta txiste edota pasadizo gutxiago entzuten baitira euskaraz. **Lexikoari dagokionean** ere, **gazteleraren presentzia gero eta nabariagoa da eta baita ingelesarena** ere beste zenbait kasutan. Orain urte batzuk pentsaezina zirudiena, pixkanaka zabaltzen ari da. Karmele Etxabek esan moduan, eta neuk gutxi esperota ere, hala da eta gero eta toki

handiagoa hartzen ari da gainera. Honekin lotuta, aipatu behar da **teknologia berriek duten eragina**, eta ez dut aipatu gabe utzi nahi Ibarako gazteen kode aldaketa aztertu zutenean aipatua. Honela zioen Etxeberriak, "garai batean nekazaritzatik bizi ziren, gaur egun, ordea, nekazaritza baztertu eta teknologia berrien mundua dago pil-pilean. Beraz, gure lexikoa alor horretara zabalduz doa" (Etxeberria, 2013:33). Horrela da, horrela gertatu da. Gabirian ere bai, noski. Gure gurasoen belaunaldia baserrian jaioa da, baina belaunaldi pare batean jada baserritik industriarako saltoa eman da, horrek dakartzan hartu eman ezberdinekin. Orain gainera, **Internetaren iraultzarekin zeharo aldatzen ari da egunerokoan darabilgun lexikoa** eta jabetu gara hortaz egindako grabazioetan eta nago ez dagoela hainbesteko alderik aztertutako bi belaunaldien artean lexikoari erreparatuz gero behintzat. Zahartxoenek lan munduarekin lotutako lexikoa darabilte, eta hori, nola ez, gaztelerarekin estuki lotua dagoen zerbait da. Aipatu baita ere, **beste batek edo norberak une jakin batean esandakoa gogora ekartzeko** ere aldatzen dugula kodez.

Honela, aurrez teorian aipatu diren funtzio ia guztiak betetzen dira guk egin dugun ikerketa honetan ere. Elkar hizketen formatua eta osatzen duten kideak direla eta, gizatalde bati elkartasuna adierazteko kodez aldatzen dutela ez da agertu, noski. Ez eta euskaraz esateko gai ez izan eta gazteleraz esan beharra ere.

Belaunaldien arteko aldeari erreparatuz gero, esan behar dugu, oro har, ez dagoela alde handirik. Aldeak badira, baina baita adin berekoak diren edo adin antzekoa duten pertsonen artean ere, izan neska edota mutil. Batek kodea gehiago-gutxiago aldatzearen arrazoia pertsonala da beraz, norbere izaeraren araberakoa, familia, lagunartea, lana... Hau dena guk aztertu dugun eremu/jende konkretu bati buruz diot, ez da orokortu behar. Aukeratutako lagina hori da eta lagin horiei buruz ari gara. Hala ere, Fernandez Alcoberrek ere honakoa aipatzen

zuen, eta ez da kasualitatea izango, "norberaren izaeraren arabera aldatzen da kode aldaketaren neurria. Beraz, hiztun guztiek kode aldaketaren oinarri edo egitura berak badituzte ere, berritsuagoa edo irekiagoa izatearen garrantzia badirudi ez dela bazter batean uztekoa" (Fernandez, 1992:159). Kontuak kontua, **hipotesietan aurreikusitakoa betetzen da**. Gainera, ez hain gaztetxoak, ez hain gaztetxoak izanda, komunikatzeko eta eurek esan nahi dutena esateko beste lasaitasun eta tenple bat dute. Esperientziak ematen duen konfiantza hori, edozer gauzari buruz luze eta lasai hitz egin ahal izateko. Honekin ez dut esan nahi gaztetxoek komunikatzeko gaitasunik ez dutela edota euren komunikatzeko gaitasuna mugatua denik, baizik eta egindako elkar hizketetan beste patxara bat nabaritu diedala ez hain gaztetxoei. **Ulergarria da**. Horrela da eta horrela izan behar du, adin ezberdintasunaren diferentzia dela medio. Aipatzekoa da, Gabiria eta horrelako herri txikietan haurrek 12 urte bete arte herriko eskolan ikasten dutela (eskola 12 urtera arte dagoenetan, noski) eta DBH ikasketak egitera herri handiago batetara joaten dira (kasu honetan ohikoena Beasaina joatea izaten da). Grabazioan gaztetxo batek aipatzen du aurreko belaunaldiekin konparatuz hizkera aldatu den ez den ari ginela, berak Beasaina joan aurretik beste modu batera esaten zituela hainbat gauza eta orain nolabait kutsatu egin dela bere hizkera. Uste dut garai horretan emango dela hizkera aldaketarik handiena, eta beraz, kode aldaketa hor hasi ez, baina nabarmen azeleratuko dela esan daiteke. Herri ezberdinetako jendeak bat egiten du bertan eta eragin nabarmena izaten du horrek. "Bi adin talde horien arteko erabileraren aldea sozializazio-ingurugiro ezberdinen ondorioa izan daiteke" (Martinez de Luna, 2014:132). Ez hain gaztetxoek, ordea, etapa hori pasea dute jada eta urtea joan eta urtea etorri beste hainbat eta hainbat pertsonekin eduki dituzte hartu emanak eta horrek nahi edo ez, konturatu gabe bada ere eragina izaten du hizkeran eta aldatu egiten da edo zenbait tokitan moldatu ere egiten dute.

Gure hiztunen **hizkuntza ohiturei dagokienez** aipatzekoa da, oro har, euskaraz bizi direla, baina **gazteleraren eragina** ezinbestean nabaritzen dutela diote euren egunerokoan. Batez ere **eskolan eta lanean**, eta zer esanik ez **telebistan**. Gaztetxoek aipatzen dute ikasleen artean gaztelera asko entzuten dela eta horren arrazoitzat jotzen dute **hala egiten dutenak handiago sentitzea**. Beste belaunaldikoen iritziak ere bide beretik doaz, kasu honetan iritziak lanean edota euren seme-alaben eskoletan gertatzen denari buruz dira. Betikoa, aski da bat egotea taldean euskaraz ez dakiena edo ulertu bai baina hitz egiten ez dakiena, beste guztiak gazteleraz mintzatzen hasteko. Idatzia teknikoegia dela ere aipatu zuten talde batean, askotan gazteleraz dagoena irakurri behar izaten dutela ogasuneko, bankuko... eskutitzak ulertzeko. Gauzak teknikoak gazteleraz ikastearen ondorio izan daitekeela aipatzen da. Bestalde, hizlarietako batek esan du askotan etxean gazteleraz aritzen dela bikotekidearekin. Euskaraz moldatzen dela dio, baina gazteleraz errazago aritzen dela bere bikotekidea, eta sarritan konturatzerako gazteleraz aritzen direla.

Belaunaldi arteko hizkera aldaketa ere izan genuen izpide. Euren hizketa egiteko moduan gazteleraren eragina nabarmena dela esaten du gaztetxoetako batek. Gazteleratik hartutako kalko asko erabiltzen dituztela. Belaunaldi zaharragoekin konparatuz gero, euren aitona-amonak esaterako Gabiriatik gutxiago irteten zirela esaten dute eta horrek ere izango zuela eraginik hizkera ez hainbeste aldatzearekin. Ez hain gazte horiek ere aitona-amonen garaian erabiltzen ziren hainbat eta hainbat hitz eta esamolde galdu egin direla diote; eurek jada ez dituztenak erabiltzen. Gurasoek oraindik batzuk mantendu dituztela, baina galtzen ari direla beste asko eta asko. Hitanoarena afera ere bi belaunaldietan aipatu da. Gabirian, eta oro har Goierrin, hika mutilen artean bakarrik egiten dela, neskekin ez. Baina ezta neskak neskekin ere eta hori ere aldatu den gauza bat da belaunaldi batzuk atzera eginez gero.

Hizkuntza ohiturak direla eta ez direla, **lehen hitza nola** esaten genuen eta horrelako gaiekin ere jardun genuen bueltaka; **ezezagunekin izaten ditugun jarrerak; euskaraz ulertu bai, baina hitz egiten ez** dakitenekin nola jokatzeko dugun... Honekin lotuta itxura eta tokia aipatzen dira batik bat. Itxurak asko eragiten omen du hizkuntza hautaketa egiterako orduan eta baita zauden tokiak ere. Bi belaunaldietan eginiko lau elkar hizketetan ateratako kontuak dira eta ez dabilta denak ideiaz behintzat elkarrengandik hain aparte; kasuak kasu eta pertsonak pertsona beti ere. Ideia bat edo batzuk izatea gauza bat izaten baita eta horiek praktikara eramatea beste bat. Lehen hitza euskaraz egitearen aldekoak dira denak, baina ohitura kontua dela onartzen dute eta euren askotan inork agindu gabe gazteleraz egiten dutela ere esan dute lehen aipatu diren arrazoi horiek direla medio. Hala ere, **estres linguistikoaren** ideia ere atera da eta hainbat unetan euren buruhausteak izaten dituztela garbi utzi dute. Horrez gain, euskaraz ulertu bai eta hitz egiten ez dakitenekin euskaraz egitea agresiboa dela aipatu dute pare batek. Ez omen luke horrela behar, baina horretara ohitu gaituztela esaten dute.

Ikerketa honetatik ateratako **ondorio nagusia** aipatzekotan esan behar dugu gaztelerak eragin nabarmena duela gure egunerokoan eta horrek gure hizketa modua guztiz baldintzatzen duela. Horrela izan da, horrela da eta horrela izaten jarrituko du. Hori ez da aldatuko guk hala nahita ere. Hain hizkuntza indartsuarekin kontaktuan bizita gure hizkuntzaren hibridazio prozesu bat ematea ulergarria dela esan dezakegu. Gainera, historiari erreparatzen badiogu, askotan euskarak bizikide izan dituen hainbat eta hainbat hizkuntzaren prestamoak hartu dituela konturatuko gara, eta hein handi batean bederen horiek aurrera egiten lagundu diote eta hizkuntzaren biziraupena ziurtatzen. Hizkuntza guztiak aldatuz doaz eta euskara horretan ere ez da atzean geratzen,

garaian garaiko hizkuntzetatik elikatzen jakin izan du eta hori hizkuntza bizirik dagoenaren seinale da.

Hala ere, geurea hizkuntza ez normalizatua izanda eta dugun zatiketa ikusita begiak erne egotea tokatzen zaigu. Horretan ez da dudarik. Harkaitz Canok poliki asko zioen legez, "guk badakigu euskara desagertu egin daitekeela eta hori ez dela hipotesi futurista, zientzia fikziozko bat. Baizik eta hori posible dela eta horrek beharbada ematen digu ezaugarri edo bizipen diferente bat frantses hiztun batek edo gazteleradun batek ez daukana; eta da, zure oinen pean dagoen hizkuntza hori, zure tresna hori ez dela betiko; eta hori frantses batek edo espainol batek ez du pentsatzen". Kontuak honela, zer dagokigu guri egitea? Lehenik eta behin, horretaz jabetu gaitezen behintzat. Lazkao Txikiri ere behin hala galdetu omen zioten: *hi Joxemiel ze ein behar diau euskeran alde?* Eta hala erantzun omen zion bere ohiko patxadarekin: *euskeran alde? Ze eingo diau ba, hitz eñ!* Hain gauza sinplea ematen duen horrek hainbat buruhauste sortzen dizkigu bada askotan eta tristea bada ere gu bezalako pribilegiatuak eta geurea bezalako arnaguneetan ere kezka hauek areagotzen ari dira. Agian orain arte behar hainbeste garrantzi eman ez zaiolako/diogulako izango da edo batek daki zergatik. *Geure arima hiltzen uzteko bezain odol galduak ez gara* idatzi zuen behinola Xabier Amurizak, eta hala abestu izan dugu ordutik; bada esango nuke badugula geure buruarekin zer hausnartua benetan euskaldun eta euskaltzaleak bagara. Geure esku baitago hein handi batean geureari eustea eta lehen hitza beti euskaraz egitea.

Naturaliza dezagun bada gure jarioa eta egin dezagun euskaraz edozein eremutan **ohiturak aldatuz**. *Nosotros construimos nuestras costumbres y luego las costumbres nos construyen a nosotros* (Nardone, 2006:100/101). Karmelo Ayestak *Goza daiteke gehiago euskaldun baten hzikuntza-bidaia* liburuan honela dio, "ohitura-aldaketak eta

hobekuntza pertsonal guztiak antzeko prozesuen bitartez buru daitezke; kirolari bihurtzeko bidea, erretzeari uztekoa, eta euskaldun bilakatzekoa ez dira hain ezberdinak... batzuetan, gizartea aldatu nahi da, norbera aldatu aurretik; baina norberak egin ezean, zaila da besteei eragitea... azken hamar urteotan, euskararen erabilera ez da igo, ez jaitsi, eta noraezean gabiltza, erabilera indartzeko zer egin jakin gabe... euskararen erabilera zabaltzeko, askok aldatu beharko dugu hizkuntza-ohitura" (K.Ayesta, 2014:5/6). Horrela da, "cada cosa lleva a otra, que a su vez conduce a otra... si te concentras en hacer la más pequeña, luego la siguiente y así sucesivamente... encontrarás que logras hacer las grandes cosas, habiendo hecho sólo las pequeñas" (John Weakland). Euskaldunok, badakigu zer egin behar dugun! Bada, utzi konplexuak alde batera eta egin dezagun geurean!

"Nosotr@s construimos nuestras
costumbres y luego las costumbres
nos construyen a nosotr@s"
(Nardone, G., Salvini, A. 2006:100/101)

12. Eranskinak

ELKAR HIZKETARAKO ZENBAIT PUNTU

1. Zaletasunak, ikasketak, lana.
2. Egunerokotasuna.
3. Asteburuak (lagunartea, festak, giroa...).
4. Oporrak.
5. Teknologia berriak.
6. Telebista, egunkaria, irratia.
7. Gaztelerak gure egunerokoan duen presentzia. Non nabaritzen duten gehienbat.
8. Horrek gure euskara mailan duen eragina.
9. Aitona-amona/aita-amen euskara eta eurenaren artean dagoen aldea.
10. Eta beste adin tartekoekin - eurak baino gazteagoak/zaharragoak direnekin - konparatuz, ba al den alderik?
11. Pertsona ezezagunekin ze hizkuntza erabiltzen duten herrian; eta kanpoan. Zergatiak.

GALDETEGIA

Hiztunaren datuak:

- Adina:
- Ikasketak:
- Ofizioa:
- Zure gurasoak euskaldunak dira: AITA bai ez AMA bai ez

Hizkuntza ohiturak ezagunekin:

- Etxean ze hizkuntzatan hitz egiten duzu?

Euskaraz

Gazteleraz

Bietan

- Lagunartean ze hizkuntzatan hitz egiten duzu?

Euskaraz

Gazteleraz

Bietan

- Eskolan/Lanean ze hizkuntzatan hitz egiten duzu?

Euskaraz

Gazteleraz

Bietan

- Ze hizkuntzatako musika entzuten duzu?

Euskaraz

Gazteleraz

Bietan

- Telebista ze hizkuntzatan ikusten/entzuten duzu?

Euskaraz

Gazteleraz

Bietan

- Ze hizkuntzatako egunkariak irakurtzen dituzu?

Euskaraz

Gazteleraz

Bietan

13. Bibliografia

- _____,(2014/03/04).
<http://audacity.sourceforge.net/?lang=eu>
- Ayesta, Karmelo (2014). *Goza daiteke gehiago euskaldun baten hizkuntza-bidaia*. Utriusque Vasconiae, Oroitzapenak bilduma.
- _____,(2017/04/22).
http://www.badubada.com/eu/erakusketa/bizikidetza_estres_ling_uistikoa.php
- _____,(2014/03/27).
http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1086087086
- _____,(2014/03/12).
<http://www.ethnologue.com/statistics/country>
- Etxabe Aramendi, Miren Arantzazu (1993). *Hizkuntza aukeraketa edo "code switching" a euskaldunen artean*. Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia (HABE liburutegia, Donostia. Argitaratu gabea).
- Etxabe Azkarate, Karmele (2010). *Kode-alternantzia lagunarteko gazte-hizkeran*. *Zaldibia eta Ordiziako kasuak*. HIZNET Hizkuntza Plangintza ikastaroa.
http://hiznet.asmoz.org/images/stories/ikerketa_lanak/2010/Kode_a_lternantzia_lagunarteko_gazte_hizkeran.pdf
- Etxabe Iribar, Amets (2005). *Kode-alternantzia lagun arteko gazte-hizkeran*. HIZNET Hizkuntza Plangintza ikastaroa.
http://hiznet.asmoz.org/images/stories/ikerketa_lanak/AmetsEtxabe.pdf
- Etxeberria Zubelzu, Lierni (2013). *Ibarrako gazte-hizkera: kode-alternantzia*. HIZNET Hizkuntza Plangintza ikastaroa.
http://hiznet.asmoz.org/images/stories/ikerketa_lanak/2013/Ibarra_Lierni.pdf

- Fernandez Alcober, Inmaculada (1992). *Kode aldaketa Durangoko gazteen hizkeran*. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia (HABE liburutegia, Donostia. Argitaratu gabea).
- _____, (2014/04/28). www.gabiria.net
- Joly, L. (2014). *Soziolinguistikaren oinarrizko kontzeptuak*. HIZNET Hizkuntza Plangintza ikastaroa. Mod. Zkia. 1.2.
- Martinez de Luna, I. (2013). Euskara EAeko Hezkuntza Sistematan: irakurketa soziologikoa. In Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Hizkuntza Politika eta Kultura Saila eta Soziolinguistika Klusterra: *Ikasleak hiztun. 2011ko Arrue Proiektua*. Gasteiz. Eusko Jaurlaritza (121-133).
- Nardone, G., Salvini, A. (2006). *El diálogo estratégico*. Integral.
- Olaso, O. (2014). *Ikuspegi Soziologikoa eta gizarte psikologiarena*. HIZNET Hizkuntza Plangintza ikastaroa. Mod. Zkia 1.4.
- Sanginés, G. *ARGIA* astekarian eginiko elkarrizketa. 2013ko abenduaren 15a.
- _____, (2014/07/05). www.telptailerrak.com
- Vinagre Laranjeira, Margarita (2005). *El cambio de código en la conversación bilingüe: la alternancia de lenguas*. Cuadernos de lengua española, 87.
- _____,(2014/04/29).
<https://www.youtube.com/watch?v=6PwII0vnqhw>
- Zalbide, M. (2014). *Hizkuntza gutxituen berreskurapenerako hainbat hurbilpen teoriko*. HIZNET Hizkuntza Plangintza ikastaroa. Mod. Zkia. 1.3.
- Zarraga, A., Coyos, J.B., Hernández, Jone M., Joly, L., Larrea, I., Martínez, Loren V., Uranga, B., Bilbao, P. (2010). *Soziolinguistika eskuliburua*. Soziolinguistika Klusterra, Eusko Jaurlaritza (kultura saila), Gasteiz.

- Zer egin...? Euskaraz egiterakoan egunero sortzen zaizkigun egoerei aurre egiteko lagungarriak. Lana euskalduntzeko kooperatiba, *EMUN* (2010). <http://www.lantalan.com/baliabideak-eta-tresnak/zer-egin-eskuliburua> (2014/07/05)